

## San Josetako bertso saioa hilaren 19an Igorreko Kultur Hamabostaldian

12. orrialdea

## Laburbira, film laburrak euskeraz, Areatza eta Igorren

Euskaltzaleen Topaguneak Laburbira film laburren hamabigarren edizioa ipini dau martxan. Holan, martiaren 20 eta 27an, zortzi film labur proiektuko dira. Igorren, 20an, arrastiko zortziretan Lasarte Areatza, eta 27an Areatzan zazpiretan ikusi ahal izango dira zirkuitu honetako filmak. 13. orrialdea



## Itziar Zabalak eskaladako Espainiako Kopako proba bat irabazi dau

10. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 226

2015eko martiaren 17a  
hamabostekaria  
www.begitu.org



## Arineketan, galapan, karran... Korrika!

**K**orrika 19 martiaren 19an hasiko da Urepelen arrastiko bostetan. AEK-k, autobusa ipin dau Arratiatik Urepelera joateko eta jai giroan lagunduteko Korrikaren hasikerea.

Hilaren 29an helduko da Bilbora. Arratia, Ubide eta Ze-

beriotik bezperan pasauko da, martiaren 28an, eta 29ko ordu txikitetan Bedia eta Lemoatik. Ordu zehatza ikusi daiteke 8. orrialdean.

Antolakuntzan, Arratiako AEK-ko hiru lagun egongo dira eta lasterketako furgonetan joango dira gertatukoaren barri

emoten, lekukoa jagoten eta korrikalariai lagunduten zozer behar izan ezker. Ez da lehenengo aldia izango Gorka Barrenetxea eta Igor Elordui furgonetan doazela Korrikaren ibilbidea egiten. Korrika biziteko modu bat dala dinor eta horregaitik errepitidu gura izan dabela. **8. eta 9. orrialdeak**

### ARRATIA

#### Aurrekontuak

Arantzazu, Bedia, Lemoa eta Zeberio 2015eko udal kontuak onartu dira. Bedian ago batez, eta beste herrietan oposizioaren abstentzioari esker. Igaz baino diru gehiago aurrekusten dabe kontuak eta inbersioetan igarriko da hau. Holan, Arantzazun kirol eta aisialdirako ekipamentu barriak izango ditue, Bedian, igaz erre zan frontoiko teilatua konponduko dabe, Lemoan Lehendakari Agirre etorbidea barriztatuko dabe eta Zeberion, Ermitabarrin dagoan Etenagusia baserriaren beheko solairua egokituko da Zeberioko elementu etnografikoak gordeteko leku aproposa egiteko.

Kultur jardueretarako bideratutako diru partidak igon egin dira orokorrean eta mantenidu bakarrik ez, hobetu be egingo dira jarduerok.


Herritarren ekarpenak be jasoten dabez aurrekontuak. **5. eta 7. orrialdeak**

### ARRATIA

#### Energia kudeaketarako plana

2014-2015eko Energiaren Kudeaketa Plana ezetutera emon dau bere webgunean Arratiako Udalen Mankomunidadeak. Hainbat ekintza ipini ditu martxan energia modurik eranginkorrean kudeatuteko. Igaz egindako ekintzakaz berbarako, Arratiako udalerrietako fakturan 72.158 euro aurreztuko dira urtero.

Planak gomendioak egiten deutsez udalari aurrezpena handiagoa izan daiten. **6. orrialdea**



### ZEBERIO

#### Fracking-a debekatzeko proposamena

Gorbeiko Parke Naturelean fracking-a debekatzeko prozedura martxan ipinteko eskatu deutso Eusko Jaurlaritzari Zeberioko Bilduk.

Zeberio, Zuia eta Oñatiko Bilduk Gorbeia eta Aizkorri-Aratz Parke Natureletako planak aldatuteko eskatu eben, jenteak teknika honen kontra dagoala erakutsi dauala Herri Ekimen Legegileak eretxita. Han 103.000 sinadura baino gehiago jaso ziran fracking-a debekatzeko eskatuz. **5. orrialdea**

# MARRAK

paperdenda

- \* Eskolarako eta ikasketetarako behar duzun material guztia
- \* Eskulanetarako materiala
- \* Opariak
- \* Gonbidapen txartelak
- \* Fotokopiak
- \* Espiral enkuadernaketak
- \* Fax zerbitzua

marrakpaperdenda@gmail.com  
www.facebook.com/marrakpaperdenda

Lehendakari Agirre, 29-B, 6A-Igorre  
94 631 52 27

## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

## PEDRO IPIÑA

Zezenketak ikustea plazan espektakulua izaten zan XX. mendean, batez be lehenengo hamarkadetan. Arratian, zezenak egiten ziran herrietako jaietan, Areatza, Artea edo Dimako kosoak zaletuz bete egiten ziralarik. Inguruko toreru bi aitatu doguz: Areatzako Recaredo Usubiaga, "Arratianito" gatzenagaz eza gutua, eta, urte batzuk beranduago, Arantzazuko Pedro Ipiña izan ziran ospe gehien lortu ebenak. Atzen hau "Morenito de Sestao" ezizena erabilten hasi zan Sestaon bizi izan zalako. Bera da oraingo honetan dakargun personajea.

Pedro Ipiña Beaskoetxea Arantzazun jaio zan 1903. urtean, Arantzazugoit auzoan. Etxean asko ziran eta dirua nekez ikusten zan. Gaztetan alde egin eban industria aldera,

Sestaora hain zuzen be. Zezenetara zaletua zan lez, entrenamentuak eta ahalegin handiak egin ostean, bete egin eban bere ametsa: debuta egitea, zekorkari moduan, Bilboko Vista Alegre zezen plazan 1926ko martiaren 4an, Jose Sobrevila apoderaduren eskutik. Lehenengo denporaldia ona izan zan, 28 zezenketetan, 44 zezen toreau eta 28 belarri ebagi ebazan. Arrakastak lagundu eutsan hurrengo urteetan be. Pedro Ipiña agertuten zan, ferriako karteletan, errejonean figurak ziran Pedro Lekunberri eta Antonio Marcet-en ondoan eta Cayetano Ordóñez, Jaime Noaín, Enrique Bartolomé, "Torquito III" edo "Lagartijo" lango tauromakian maisu ospetsuak ziranakaz. Zezen plaza asko zapaldu ebazan, esate baterako: Bartelona (Areetako zezen plaza), Girona (Santa Eufemia zezen plaza), Donostia, Zaragoza, Salamanca

(La Glorieta zezen plaza), Medina de Pomar (Burgos)... 1928. urtean, moto sidekar baten joiala, Martzelo Barrenetxea lagunagaz, istripu larria euki eban. Martzelok motozikletea gidatzen eban, baina Galdakaon tranbia baten aurka jo, eta lurre-ra jaustean, Pedro Ipiñak hazurapurketak sufridu ebazan ezkerreko hankan. Korrida batzuk suspendidu, eta zezenka jarraitu eban erretirau arte.

II. Errepublikaren denporan antolatuko udal hauteskundetan, Pedro Ipiña EAJ/PNVko zinegotzia izan zan Arantzazun. Gero, 36ko Gerra Zibilean parte hartu eban gudarien teniente graduazinoaz "Bizkaigana" Konpainian, "Rebelión de la Sal" Batailoien barruan. Frenetan ibili zanean, preso hartu eban italiarrak eta Santoñako El Dueso presongira eroan eban. Handik Kadizko El Puerto de Santa María herrian

egoan kartzelara aldatu eben, militar frankistek epaitu eta gero: hasikera baten, heriotza zigorra ezarri eutsien, ostean kendu eta, haren orde, 30 urteko zigor luzea leporatu eutsien. Ez eban bete baina hain zigor astu-na.

Aske jada, ezkondu zan Maria Arana Barrenetxea andra bilbotarragaz. Orduan, Arantzazuko herriko tabernan egiten eben behar. Urteak joan urteak etorri, 1955ean, Basaurira joan zan Pedro Ipiña. Bertan lonja bat erosi, eta taberna barri bat zabaldu eban: "Bar-Restaurante Ipiña" izenekoa. Basaurin gelditu ziran harrezkero biziten Pedro eta andrea familiagaz (seme bat eta hiru alaba). Tabernako negozioa ondo joan jakon, eta handik jubila zan. Orduko urteetan aukerea euki genduan Pedro Ipiña ezetuteko: Basaurin bizi zan lagun kuadrila arratziarrak "txikito" errondea egunero hartzean

eban "Ipiña"renean. Estimazino handian eukien gizona zan Pedro. Eta holan izan zan, 1985. urtean hil arte, 81 urteagaz.

Angel Larrea



Pedro Ipiña.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

## Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

## Martiazen 16tik 22ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

## 22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

## Martiazen 23tik martiazen 29ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

## 22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

## Martiazen 30etik aprilaren 6ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

## 22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

## Urte osoan

## 22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

## Parketxea

94 673 92 79

## Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

## Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

## Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

## Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

## Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

## Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.


## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

## Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Praktiketako ikaslea: Irati Urien.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

## ZEURE BERBEA

### Badaukagu zer ospatu

20 urtetan mundua sano aldatu da, gu ez horrenbeste. Zaztapa-rrak Asti Taldea 45 umegaz Abaltzisketara joan zanetik momentu honetararte milaka izan dira gugaz jolastu dabene ume eta gazteak. Milaka! Milaka barre, jolas, gaubela, ilusino, gogo, behar... lehen egunetik bizipoza aldarrikatu dogu, euskeratik eta euskeraz, euskeraz aldatuko dogu eta mundua. Mundua? Arratiako mikrounibersoa bai behintzat! Zaztamundua aske sentitzen garan lekua da, garrantzitsu, partaide, eta guk uniberso hori lau haizetara zabaldu gura dogu. Aisialdi alternatiba bat eskeintzen gabiz; ludoteketatik, gaztelekuetatik, eskoletatik, udalekuetatik, kaletik... aukera bardintasunetik. Bidean eskerrak emoteko jente asko: sarritan modu boluntarioan behar egin dabene, egiten dabizene eta egingo dabene hezitzaile, sukaldari, laguntzaile, alkarte, familia, ume, gazte...  
2015eko abuztuan hogeigarre-

nez abiatuko gara udalekuegara, Euskal Herriko txoko miresgarriren bat ezetutera, bidean ikasitako eta desikositakoak motxilan kargauta. Zuokaz batera ospatu gura dogu sentitzen dogun poz eta harrotasuna, eta horretarako egitarau zabala prestatu dogu. Hilabete honetan bertan hasiko gara, martiaren 27 eta 28an, Arratiako aisialdiko hezitzaileen topaketakaz; Kiñu Gaztetxea izango da eztabaidarako gunea. Barikuan 18:00etan hasiko gara; zapatuan 09:30ean ondo armozau eta gero, olgetan hasiko dogu eguna. Eztabaida, ekarpen eta sormenarako topaketak 18:30ean eukiko dabe amaierara, Korrika be bajatorku eta! Aprilaren 17 eta 18an (euririk egiten ez badau) titiriteroak Arratiako herriak alaitzen eta koloreztatzen ibiliko gara. Maiatzean, Zaztabegirale Egunean, atzo eta gaurko esperientzia eta istorioak gogoratu eta aurrera begira ametsetan jarraituko dogu.

Gu prest gagoz, eta zu?

ZAZTAPARRAK ASTI TALDEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Ogigaztai



Basoko animalia dogu oraingoan dakargun gau pizti okelajale txiki hau. Ogigaztaiak (ogigastáya, agoskatuta) gorputz luze eta polita dau. Bere ulea suabe-suabea da: gorriskea edo pardo kolorekoa lepoan eta zuria tripan. Batuaz, erbinude esaten da. Baserritar askoren artean, ogigaztaia ez da izaten animalia maitatua, kalteak ekarten ditualako (azurietara edo etxeko hegaztietara egiten dualalako); gainera, animalia erasokorraren ospea hartu dau.

## ERETXIA

### EKKI: hasi gaitezan barriro



**IGOR ESTANKONA**  
EKKIko idazkaria

U rri lehenengoaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zan Kultura Ondarearen zuzendariaren Ebazpena, zeinaren bidez baimena emoten jakon jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzen jarduten dauan Euskal Kulturgileen Kidegoa (EKKI) erakundeari euskal herrian jardun dagian Jabetza Intelektualaren Legean aitortuten diran eskubideak kudeatzeko erakunde moduan.

Eta paragrafo horregaz amaitu zan aro bat, eta beste bat hasi.

Paragrafo horregaz itzartu ginan amets batera orain hezurmamitu behar doguna: euskal egile eskubideen agentzia barria, zeina sustatzen dabizana Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Euskal Idazle Elkartea, Euskal Editoreen Elkarte, Euskal Irudigileen Elkarte Profesionala eta Euskal Herriko Musikarien Elkarte.

Alkarteok beren-beregi eroan dabe prozesu hau tentuz, astiro, seguru. Badakie uste asko biztu dauzala EKKIk, galdera ugari, esperantza bat akaso, orain arte hain urrin harrapetan euskun jabetza intelektualaren gestinoa ekarteko geografikoki hurrago eta batez be sentimentalki gertuago.

Ikusmina eragin dau EKKIk, eta seinalea da giharrean ukutu dogula nonor. Oraindino ustea dago interneten garaian, non kultura ekoizti eta konsumiduten dan ia inmediateki, mantenu leikezala indarrez monopolioak, zentzua daukala autoreak eta ekoizleak adin txikikotzat hartzea. Honenbestez:

1.- EKKIk uste dau talde sektorialetan sortzaileak eta ekoizleak eurek ebatzi behar dabela egile eskubideen modeloa.

2.- Liburu, zinema, musika, interpretazino, arte eta gainontzeko diziplinen baitan be titular bako txak bere kontratu personala euki behar daua.

3.- Jabetza intelektualak ez leuke jakintzaren hedapena eta

kulturaren zabalkundea gelditu arazo behar. Euskal kulturearen sektoreari, daukazan ezaugarriak kontuan harturik, edukien kontsumoaren hazkundea lortzea komenidu jako, bilketea be horrexen pentsura egongo da-eta.

4.- Sormenaren emoitzak, orokorrean, nahiz eta Legeak debekuen fikzinoa sortu dauan, errez kopiau eta ustiatu leitekez. Kontrolagaz itsutzeak —demanda, auzi eta polemiketan— kalte gehiago eta saldo txarra ekarriko leuskio kultureari. Horregaitik euskal kulturearen bataila da ikusgarritasunarena, kontsumoarena, opatzearena. Lizentziapen, baina opatu.

5.- Horrek, halabeharrez, tarifa merkeagoak eta irisgarritasun handiagoa suposatzen dau. Beharbada ez, beharbada EKKIko bazkideak, edo sektore konkretu bateko jenteak, gurago izango dabe estutu eta zukutu, baina uste dot horrek ez leukela etorkizunik eukiko.

6.- Eta zer pasauko jaku *creative commons* eta lizentzia libreakaz, eta *copyleft* eta kultura zabalago bat gura dabene horeekaz? Eskubide batzuk, ez daigun aitzu, "itxi ezinezkoak" dira, eta kobrau kobretan dira, euren izenean baina euren bizkar. Bada, kulturara hurreratzeko modu hori daukienai be esan beharko deutsegu etorteko debatera, eta eurek generatutakoa eurek baliatu dagiela ondoen eristen deusien moduan.

7.- Eta danon artean alkartasun bat montetea be ez legoke txarto, adinean gorantza doazanak laguntzeko, txarto pasetan dabizanen sostengurako, gure arazo prosaikoak ez daukiezan eta kultura egunero sortzeako apustu neketua hartu dabene sortzaileentzako.

Utopia?

Holan hasi dira errealidade guztiak gure herrian.

(Zezeilaren 26an Bilboko aurkezpenean irakurritakoaren zatia).



**BATZ 50**  
urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**

**...BAGARA ETA IZANGO GARA**






## LUMATUTEN

ARANTZA  
ETXEBARRIA  
ITURRATE

## Emozinotegia

**H**ainbat emozino bizi doguz egunero, eta emozinook bizi gaitue. Baina geure inguruan normalidadetik kanpoko bizipen bat egon arte ez gara benetan konturatuten horretaz. Oraingoan, hodei ilunak ailegau dira gure etxe ingurura, eta horren atxakian ipini naz neure barrura begira.

Zorizatuko afruntuaren barri izan genduanean, amorrua eta ernegua sentidu genduzan, baita ikarea be. Horrek geure gorputza geldiarazo egin eban, eta pentsetako kapaz be ez ginan. Ez dot ukatuko suminduta be bagengozala, eta horren eraginez, tensinoan bizi izan genduzala lehenengo egunak, nahastuta, egonezinean, zer egin eta nora joan ez genkiala. Babes falta itzela genduan, bakardadea eta etsipena ziran nagusi gurean, ez genkian-eta nola moldatu aurrean geunkan

egoera barrian. Ilusinoa galdu genduan: zelan altzau burua? Pozu baltzetik zelan atera? Frustrazinorako bidea hartu genduan, gure egitekoa guztiz mugatuta egoala ikusita.

Baina tristezia albo batera itxi, seguridade faltea ahaztu, eta lehenengo eta behin, egoerea onartu egin behar genduala ohar-tu ginan. Horren ostean, gure lepoko pisua arindu egin zan, patxadaz begiratu genduan aurrera. Eta indarbarrituta konfirmatu genduan ilusinoa berreskuratu genduala; erreparo handiz hasieran eta gogoz gero ekin geuntsan bideari. Harrotasun handiz eta esker onez esan ahal dogu gaur-gaurkoz mirespena sentiduten dogula arerioaren kontra ezpatarik zorrotzena atera dauan soldaduari begiratuta. Eta guk, bada, soldadua babestu egingo dogu burruka-zelaian. Zaldun hori! Burrukarako prest daukaguz zaldi, asto eta mandoak.

## ZERTZEAN



SAIOA LARREA



## BEGI TXINDORRA

**M**algutasuna eskatzen deuskue androi. Malgutasuna, besteen eskakizunai egokitzeko.

Beharrean (enpleguan zein etxekoan) malgutasuna eskatzen deuskue:

-Lana eta familiaren arteko konziliazioa egiteko. Lanaldi murriztuak geuk hartzeako, geure lan profesional eta geure diruen kalterako.

-Ordaindu bako lanak egiteko.

-Ordutegirik ez daukien behar guztiak gure gain hartzeako.

-Ingeniari, arkitektu zein teknikari izanda be, lan-maila alde batera itxiteko kafetxo bat edo kopautxo bat antolatu behar danean. Ardura horreek geuk hartzeako. Malguak izateko.

Eta aisialdian be malgutasuna eskatuten deuskue:

-Aisialdia eukitekotan, malgua izan daitela. Eta besteen nahiak bete-teko sakrifikau behar badogu gure astia, sakrifiketako...

Eta gu malguak gara.

Malguak gara, bai, baina ez eskatzen deuskuen horretarako:

-Malguak gara posturarik gaxenean be liburu on batez disfrutatuko.




**LORAZAINTZA**  
 S. Coop.  
 Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
 Ureztaketa instalazioa  
 Mantenua eta Inausketa  
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
 Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
 gorosti@gorostiscl.com


**agoa**  
 Ortodontzia  
 Inplanteak  
 Estetika  
 hagin klinikea  
 Marina Urigoitia Aldekoa  
 Odontologoa  
 Bidebarri 1, behea  
 48140 Igorre - Bizkaia  
 T. 94 631 50 39  
 Kolegiatu Zerbaki: 900  
 R.P.S. 31/06

**FISIOTERAPIA**  
**Balneario Areatza**  
 Tania Fernandez Santiago  
 COL. 1718  
 www.gruposasoibide.com  
 Tel.: 94 657 54 50

## ZEBERIO

# Gorbeia Parke Naturalean fracking-a debekatzea proposatu dau Bilduk



Zeberio, Zuia eta Oñatiko udal ordezkariak.

Gorbeia eta Aitzgorri-Aratz Parke Naturaletan fracking-a debekatzeko prozedura martxan ipinteko eskatu eutsien Eusko Jaurlaritzari Zeberio, Zuia eta Oñatiko Bilduko udal ordezkariak.

### Erredakzioa

Zuiako alkatea eta Zeberio eta Oñatiko alkateordeak prensa agerria egin eben martiaren 2an Gasteizen. Bertan adierazo eben EH Bilduk Eusko Jaurlaritzaren esku dagoan Parke Naturala kudeatutako plana aldatzea eskatu daua, haustura hidrauliko gisa ezetutun diran hidrokarburoak ustiatzeko teknikak debekatu eta inoz ez erabilteko. Jentarteak teknika honen kontra dagoala erakutsi daua be esan eben. Izan be, hainbat plataformak bultzatutako Herri Ekimen Legegileak 103.000 sinadura baino gehiago bildu ebazan.

### Fracking-aren mehatxak jarraituten dau

Fracking-aren mehatxua ez dala gelditu gogoratu eben Lander Astorkia Zeberio alkateordea eta Zuia eta Oñatiko ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzak emondako zundaketa baimenak indarrean jarraituten dabela. Orain, gainera, fracking-aren arriskua Burgosetik datorrela esan eben; Valderejo Parke Naturaletik hur, Arabako mugan, hainbat putzu zundatzeko baimena emonda dago-eta.

Bilduko ustez, fracking-ak sortu leikezan ondorioak inoz ez sufriduteko biderik zuzenena fracking-a debekatzea da. "Norabide horretan lehenengo pausua gure udalerrian dagoan Babestutako Natur Eremuan fracking-a ahalik

eta azkarren debekatzeko dala bermatu behar dogu", esan eben.

### Fracking-aren eragina paretik harago

Zezeilaren 9an, Areatzan egon zan Marta Rozas Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurumenaren eta Inguru Plangintzaren Zuzendaritzakoa. Rozasek Gorbeia Konserbazio Bereziko Eremua izentatzeko prozesuko parte hartze sozialean jasotako ekarpenak zelan baloratu ziran eta txosten teknikoan kontuan hartuko ziran ala ez azaldu eban. Parkearen eremuan fracking-a debekatzeko proposamena be egin eben parte hartze tailerretako partaideak, eta Jaurlaritzakoak "fracking-a EAren eremuan landu behar da. Ezin da eremu babestuetan bakarrik debekatu, fracking-aren eragina sentiduko litzatekelako eremu honeetan be" esan eban orduan.

EH Bilduk, EAk Herri Ekimen Legegilearen eztabaidea oztopatu, eta fracking-aren gaineko eztabaidea isildu arazo gura daua dino. "Baina gure ustez, azkartasunez erantzun behar dogu: fracking-a eremu guztietan eta modu eraginkorrean debekatzea, eta gure lurraldeak teknika honen ondorioak inoz sufridu ez dagiezan neurriak hartu behar doguz", adierazo eben Bildukoak eta euren ustez, horretarako lehenengo pausua fracking-a Babestutako Natur Eremuan debekatzea da.

## LEMOA

# Inbersinoetarako diru gehiago eukiko dau Udalak onartutako kontuak esker

Lemoak 2015erako kontuak onartu ebazan martiaren 11n, Bilduren aldeko botoakaz, EAJ-PNVren abstentzioagaz eta PSE-EEren kontrako botoagaz.

### Erredakzioa

Aurrekontua 3.918.599 eurokoa da. Igazkoa, hau da 2013ko aurrekontu luzatua baino 465.618 euro gehiago.

Udal Gobernuak aurkeztutako kontuak onartuta, diru gehiago izango dau aurten Lemoak Udalkutxatik diru gehiago jasoko dalako eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergetatik be diru gehiago sartuko dalako, Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatearen arabera.

Honeri esker, 2015eko aurrekontuak inbersinoetarako diru gehiago bideratzea ahalbidetuko

dau, 949.727 euro hain zuzen be. Diru horregaz, Lehendakari Agirre etorbidea barriztatu, eraginkortasun energetikorako inbersinoak egiten jarraitu eta bideak barriztatuko dira, beste gauza batzuen artean. 2013ko kontuetan kapitulu horretarako 476.904 euro egozan.

Alkatearen arabera, aurrekontuak lortu dau adostasuna modu parte hartzailean eta danon ekarpenak jasota egin dalako. "Herriagaz batera landutako aurrekontua da, herritarrak parte hartzea izan dabe aurrekontu honetan, eta espero dot kontu honek urte ona egitea, eta lan ona egin ahal iza-

tea aurreikusitako alor guztietan" esan eban.

### EAJ-PNVren ekarpenak jasota

Aurrekontu hau ez dala eurek egingo leukiena esan eban Iñaki Rioja EAJ-PNVko zinegotziak eta horregaitik ez eutsiela aldeko botoa emon. Eurek aurrekontu "sozialagoa" gurako leukielako, hain zuzen. Kontrako botoa be ez eutsien emon, euren taldeak egindako lau ekarpenak jaso egin diralako aurrekontuan.

PSE-EEko Unai Ortuzarrek ez eban gura izan kontrako botoaren zergaitia azaldu.



Aurrekontuak onartu ziraneko plenoko irudia.

## ARANTZAZU

# EAJ-PNVren botoakaz eta Bilduren abstentzioagaz onartu da aurrekontua

### Erredakzioa

Martiaren 10ean onartu ziran Arantzazun 2015erako udal kontuak, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta Bilduren abstentzioagaz. Aurrekontu hau 481.262 eurokoa da. Inbersinoetarako 93.758 euro dagoz. Kultura, kirola eta euskera sustatzeko 64.650 euro aurreikusten dira horreen inguruko ekimenak diruz lagunduteko, Korrika tartean.

Onartu barri dan aurrekontua soziala da Llanoren ustez, "partida sozialak puntual, eraginkor eta hurrekoak dira. Larritasun egoeretan arazoa konponduteko balio izan dabenak".

Aisialdi eta kirol ekipamentu barriak izango ditu Arantzazuk aur-

ten. Holan, frontoiaren inguruan tirolina eta skate pista ipiniko dabe eta barruan, eskaladarako hormea.

Euskerea, kultura eta kirola sustatzeko, hainbat jarduera (pilates, ingelesa, euskal jantzak eta abar) diruz lagunduten jarraituko dau Arantzazuk. "Aurreko urteetan legez, jaietan bardintasuna landuko dogu bereziki eta aurten, modu berezian babestuko dogu Korrika" azaldu eban alkateak.

Arantzazuko Udalak, Arantzazuko gazte bateri udaletxean praktikak egiteko aukerea emongo deutso.

### Trafikoa moteldu frontoi inguruan

Frontoi inguruan trafikoa moteldu eta ingurua seguruago egiteko

frontoiaren inguruak oinbideen erara asfaltatuko dira.

### Parte hartzea

Parte hartzeari jagokonean, herri txikerra izanda, hartu-emona hurrekoa dala esan eban alkateak. Bilduren proposamena onartuta, aurrekontuak onartu aurretik herritar guztiai zabalduetako batzar baterako deialdia egin zala, baina bertara Roberto Fernandez Bilduko zinegotzia eta bera baino ez zirala agertu esan eban Llanok. "Niri ez jatan arraroa egin; izan be, martitzen eta eguen guztietan lehentasuna emoten deusagu jentearen harrereari. Aurretik hitzordua euki zein ez. Eta telefonoz jentearen deiak erantzuten dodaz astelehenetik domekara".

## ARRATIA

**Energiaren kudeaketeagaz dirua aurrezten hasi da Arratia**

Arratiako Udalen Mankomunidadeak, 2014-2015eko Energiaren Kudeaketa Planaren aurkezpena ezetutera emon dau bere webgunean. Honen arabera, hainbat ekintza ipini dira martxan energia modurik eranginkorrean kudeatuteko, eta 2014an egindako ekintzakaz, Arratiako udalerrietako fakturan urtero 72.158 euro aurreztuko dira. Horreetatik 64.500 euro aurreztuko dira kontratauta egoan gehiegizko potentzia egokitu dalako, 2.837 euro ordu bereizketan egozan akatsak konpondu diralako eta 4.821 euro Iberdrolaren akatsakaitik.

**Erredakzioa**

2014an gainera, aurrezpen puntualak egin dira. Holan, Iberdrolak bere erroreakaitik atzerapenak itzuli deusaz Arratiari, 13.921 euro, eta mantenimentuan be 14.417 euro aurreztu dira. Energiaren kontsumoari jagokonean, kontsumoa gitxitu egin da, 2014an 2012an baino 356.726 kw/h gitxiago kontsumidu ziran.

Planak gomendioak egiten deutsez udalari aurrezpena handiago izan daiten.

**Eraginkortasun Energetikorako Bulegoa**

Kudeaketa Plana datu biketeagaz hasi zan. "2011n hasi ginan datuak biltzean auditoriak egiteko. ESETEK enpreseagaz 2012an hasi ginan, kontsumoen datuak modu egokiago baten kudeatzen eta lehe-

**Energiaren Kudeaketa Planaren aurkezpenaren 6. orrialdea.**

nengo erreflexinoak ateraten hasi ginan. Honen ondorioz, urteroko kudeaketa plana egiten da, helburu eta proposamenak finkatuz" azaldu deutso BEGITURI Aitor Uriguen Eraginkortasun Energetikoko Bulegoko teknikariak.

Bulego honen eginbeharrak, kontsumo energetikoaren segimentua, eraginkortasun energetikoa hobetuteko proposamenak egitea eta laguntzea emotea, kontsumoen monitorizazioa, sensibilizazio kanpainak, eta argiztapen publikoaren

mantentze lanen kudeaketea da. "Energia enpresa asko jatorriz euren zerbitzuak eskeintzen. Guk, batzuetan, udalakaz ipinten doguz kontaktuan. Udalerri bakotzak zer egin leiken ikusi behar da. Horretan egingo dogu behar aurten, udalerri bakotxarentzako plan energetikoa diseinetan" dino Uriguenek.

**Induzinotik LEDera kaleko argietan**

Eraginkortasun Energetikoa Europak exijiduten dauan betebeharra da, baina hau aurrera erateko modua desbardina da Arratiako udaletan. Ubidek, barbarako, ez dau parte hartu Mankomunidadearen Plan honetan. Dana dala, orain dala urte bi kaleko argiak aldatu ebezanean kontsumo gitxiko argiak -induzino eta LED- ipini ebezan.

Kontsumo gitxirako atzen teknologia LED argiak dira eta horreek dabiz ipinten herri gehienetan. "Energiaren eraginkortasunaren aldeko apostua egin eben lehenengo herriak, Areatza, Artea, Arantzazu eta Dima induzino sartzean hasi ziran, orduan LED teknologia karua zalako" dino Francisco Moya Eraginkortasun Energetikoaren Bulegokoak.

Orain, ostera, LED teknologia merke dago eta kalidade handiagoko argia eskeintzen dau. Bedian eta Lemoan, LEDa da nagusi. Igorren eta Zeanurin, teknologia bien (induzino eta LED) erabilpen esperientzia piloak egin dabez eta induzinoagaz hasi arren, Areatzan eta Artean atzen teknologia hau erabiliko dabela hemendik aurrera uste dau Uriguenek. "Areatzako erreka ondoko pasealekuko argiak, eta 2014an egindako guztiak, LEDa darabile" dino.

## ARRATIA

**Gurutze Gorriak Alkarregaz proiektua abiatu dau****Erredakzioa**

Arratiako Gurutze Gorriak (AGG) abian ipini dau Alkarregaz izeneko proiektua, Lehen Hezkuntzako 6. mailako nerabeentzat. Helburua euren arteko hartu-emonak bultzatzea da, Lehen Hezkuntzatik DBHrako etapa aldaketan laguntzeko asmoagaz. Izan be, nerabeentzat etapa hau oso garrantzitsua da Gurutze Gorriko teknikarien eretxian.

Programazioari jagokonez, hilerro, atzen astegoienean, topaketa bat egingo dabe martiatik hasita maiatzera arte. "Ezinbestekoa izango da topaketa guztietara etortea, proiektua prozesu parte-hartzaile eta integratzaile baten oinarritzen dalako" dino Xabier Pastor, Gurutze Gorrikoak. Martiko topaketea institutuko patioan egingo da goizean zehar. Aprilean barriz, garraio publikoa erabilia, Bizkaiko herri batera joango dira proiektuan parte hartzean daben gazteak. Eta maiatzean, egun bi eta gau bateko topaketea egingo dabe aterpetxe baten.

Orain arte Arratiako herri eskolakaz, gizarte zerbitzuakaz eta Arratia Institutuagaz batzartu dira, profesionalai proiektua aurkezteko, eta nerabe eta gurasoak lehenengo hartu-emon bat izateko.

## BEDIA

**Trafikoa lasaitzeko lanak Ibarren****Erredakzioa**

Bediako Udalak urigintza lanak hasi dauz Ibarra auzoan, trafikoa lasaitzeko eta oinezkoari lehentasuna emoteko asmoz. Horretarako, bidea barriro asfaltetan dabiz, oinezkoak lehentasuna daukiela adierazteko, eta, oinezkoentzako eremuetan erabilten dan kolore gorriko asfalto berezia erabiliko da.

Udal iturrien arabera, proiektuaren asmoa auzoan personai lehentasuna emotea da. Hori dala eta, aisialdirako eta atsedenerako gune txiki bat be diseinatu dabe, banku barriakaz. Argiztapen publikoa be aldatuko da, LED luminariak ipiniz. Argiztapen publikorako kableak lurperatuko dira eta euri-urak batzeako azpiegiturak egingo.

## LEMOA

**Norma Ageitos: "Androk 'dirutasuna' behar dogu"****Erredakzioa**

Lan munduak ez dauz andrak guztiz hartu eta enpleguan desbardintasun handia dago gizon eta andren artean. Martiaren 11n, Norma Ageitosek "Emakumeen enplegua zelaz sustatu" izeneko berbaldea emon eban Lemoan. "Androk zailtasunak daukaguz lan-merkaturatzerakoan. Gainera, zailtasun honek ez dira krisiaren propioak, baizik eta onura ekonomikoko garaitik arrastaka dakarguzanak dira".

Ageitosek andren enpleguaren egoera latza erakusten dabezan datuak emon eban: soldata arraila EAEn % 25,83 da. Horrek esan gura dau andrak hiru hilabeta gehiago lan egin behar dabela soldata bardina jasoteko, edo,

beste modu baten esanda, gizonak urtean 7.000 euro gehiago irabazten dabela lan bardinagaitik. Hori gitxi balitz, andrak langabezi eta inaktibidade tasa handiagok sufrituten dabez, langabezi denporea be batatz beste luzeagoa da gizonena baino, eta lanaldi partzial eta mugadun gehienak andrak daukiez.

**Diru laguntzak**

Egoera hau aldatuteko eta andren enplegua sustatzeko diru laguntzak badagozala esan eban Ageitosek; barbarako, Gizarte Segurantzak bonifikazioak erakundeentzat. Andren autoenplegurako be laguntzak emoten dauz Bizkaiko Foru Aldundiak. "Badagoz jada martxan ipini diran diskriminazio positiboaren ildoko neurriak, zeozelan

desbardintasunak burrutatze eta leuntze harira sortuak. Honek bai kontratazio sasoian jaso daitkezan hobari desbardinetan eta baita ekintzailtza proiektuetako hobari berezietan bananduten dira batik bat. Gainera, honeen inguruko informazio osoa gida desbardin bitartez lortu daikegu Emakunderen web orrialdean eta sano modu argian azaltzen dira laguntza bakotxaren ezaugarri, hobari eta betebeharrak" azaldu eban.

**Desbardintasun esperientziak**

Berbaldiaren ostean, publikoak andren esperientziatik sortzean

diran kritika eta gehigarri interesgarriak egin ebezan.

Lagundu arren, neurri honek ez dira nahikoak desbardintasun egoera honeguz amaituteko. "Egia da martxan ipini dirala diskriminazio positiboaren ildotik hainbat neurri eta bere efektuak krisi garaian be antzeman leitekezala, baina ikusita sakonean oraindino be badirauren estereotipo tradizionalen eragina nongura daukagula, zeozer gehiago egin behar dogula argi dago. Eta zerbait hori ez dago bakarrik a posteriori neurrien sorketan". Estereotipoak eraldatzeko esfortzua defendiduten dau Ageitosek.



## BEDIA

# Bediak 1.179.023 euroko aurrekontua onartu dau, 2014koa baino % 6 handiagoa



Bediako Udala.

### Erredakzinoa

2015eko ekitaldirako, Bediak 1.179.023 euroko aurrekontua eukiko dau guztira; hau da, 2014ko aurrekontua baino % 6 handiagoa (ordukoa 1.111.413 eurokoa izan zan), eta, bigarren urtez segiduan, ez da udal zergarik eta tasarik igongo.

Aurtengo aurrekontua ago batez onartu zan. Bertan, 208.372 euroko inbersinoa aurreikusten da, batez be frontoia konpontzeko; izan be, kalte larriak euki ebazan igazko garagarriaren 10ean izandako sutean. "Gobernu taldearen apustua da lehentasunik handiena daukien beharizanak eta oinarriko zerbitzuak asetzea, eraginkortasun erispideakaz eta gastua

arrazionalizauz", adierazo dau Aitor Sorriketak, herriko alkateak.

Udalak 334.532 euro (aurrekontu osoaren % 28,37) bideratuko dauz ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetara. Diru kopuru hori udal funtzionamenturako bideratuko da (argiaren, uraren eta telefono-hornidurearen ordaintak, eraikinaren garbiketea eta abar), bai eta obra txikiren baterako be. Eta beste 302.000 euro transferentzia arruntetara (jarduera kulturalak, euskera, bardintasuna eta abar) bideratuko dabez.

"Aurton be, Bediak handitu egingo dauz kultur jardueretara bideratutako partidak, eta, modu horretan, jarduera guztiak mantentzeaz gain, kasu batzuetan hobetu be egingo dira" dino alkateak. Arlo ho-

retan, urtailean martxan ipinitako Ludoteka eta Gaztetxoko zerbitzu barriak nabarmendu behar dira. Langile-gastuak aurreko ekitaldiko zifretan mantenduko dira, langileen soldatea ez da igongo.

Diru-sarreraren atalean, % 66,93 (789.051 euro) transferentzia arruntetatik dator. Partida horretan Udalkutxatik eta Eusko Jaurlaritzatik datozen diru-sarrerak dagoz sartuta, bai eta frontoiaren erabile-reagaz lotutakoak be.

Bediako Udalaren pasibo finantzarioa 1.940 eurokoa baino ez da (aurrekontuaren % 0,16), eta hori bat dator Udalkutxaren 2014ko likidazioagaz, negatiboa izan zan eta.

### Frontoiko sutearen kalteak

Igazko udan frontoiaren estaldurea kaltetu eban ezbeharrak eragina euki dau udal kontuak prestatzeko orduan; izan be, konponketearen kostua aurrekontu barrietan sartu behar izan da. Hau da: Udalak obreak jagokon dirua aurreratu behar dau, kalteen ondoriozko kalte-ordainaren prozesu osoa amaitu arte. "Gestinoak sano astiro doaz, eta momentu honetan ez dakigu ze kopuru jasoko dauan Udalak kontzeptu horrengaitik", esan dau Sorriketak.

## ZEBERIO

# Udal kontu orekatuak eta diru gehiago

### Erredakzinoa

2014ean Udalak eukazan mailegu batzuk kendu eta zor finantzarioa jeitsi dau Zeberio. Hori dala eta, aurten, aurrekontu orekatu onartu da Bilduren aldeko botoakaz; hau da, diru sarrera eta gastuetarako diru kopuru bardina aurreikusten da; 1.479.280 euro, hain zuzen be.

Igaz auzolana sartu zan udal kontuetan eta aurten be partida horrerri jarraipena emongo deusie. Partida "horren bitartez betiko formula bat aurrekontuetan txertatzea bilatzen zan eta, era berean, udal balibideai etekin gehiago ateratzea, hau da udal finantziazioa eta herritarren parte hartzea eta lana buztartzea. Holan, posible izan zan herriko auzo konkretu batzuetan suteen kontrako sistema batzuk jarrea (kutxa batzuk suteen kontrako materialagaz, mangerak eta abar). Aurten, partida horrerri zein egitasmoari

jarraipena emoteko asmoa dauka" azaldu deutso BEGITURI Ana Belen Alberdi Zeberio alkateak.

Aurtengo inbersinoen artean, aitzatekoa da, Herri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) partidea, 54.177 eurokoa. Herriaren orografia eta egiturea kontutan harturik herriko bideen konponketarako eta mantentmenturako partidea be nabarmendu behar da alkatearen ustez. Izan be, "beti dago zereginen bat egingo arlo horretan".

Energia eraginkortasunari jagokonean, igaz kanpoko argiterien aldaketak hasi ebezan Zeberion eta horretan jarraituteko asmoa dago, beti be, horretarako bideratuta dagozan dirulaguntzen arabera.

### Etnogunea

Azpiramarratzekoa da, Etnogune deitzean dan 30.000 euroko partidea. Ermitabarrin dagoan Etxenagusia baserriaren beheko

solairuan, egokitzapen lan batzuk egingo dira aurten Zeberioko ondare etnografikoari kokapen egoki bat bilatzeko. Horretarako, Udalak Santo Tomas Patronatoari aitatuko baserria alokatu eutsan eta, aurten, obrak hasiko dira. Holan, Zeberioko Udalak daukazan eta etorkizunean eskuratu leitekezan Zeberioko elementu etnografikoak, leku aproposa eukiko dabe eta erakusgai egon ahal izango dira.



## LEMOA

# Herriko antxinako argazkien bilketari ekin deutso Udalak

### Erredakzinoa

Lemoako argazki historikoak edo antxinakoak biltzeako egitasmoa ipini dau martxan maiatzera arte Udalak. Herriaren, herritarren, lanbideen eta ohituren bilakaerea erakusten daben argazkiak batu eta artxibau gura ditue eta horretarako herritarrai eskatzen deutsee laguntzea, etxean daukiezan holango argazkiak udaletxean aurkezteko eskatuz. Argazkiok Udal Artxibategian dagozanean, herritarrek bilketea osotuten daben argazki guztiak

ikusteko aukerea izango dabe.

Lemoako argazki historiko eta antxinakoak Udal Artxibategian gordeteko, originalak udaletxean aurkeztu behar dira eta denpora bat pasautakoan argazkia itxi dauanagaz ipiniko da kontaktuan Udala, argazkia itzultzeko. Originalak udaletzeko beheko solairuan aurkeztu behar dira eta argakiagaz batera, atzekaldean edo aparteko dokumentu baten, argazki horren datuak agertu behar dira. Udaletxean, bilketearen arduradunak agiri bat emongo deutso emoleari. Agirian, argazki kopurua, argazki bakotxaren xehetasunak eta emolearen datu personalak zehaztuko dira.

### Itzultzeko modua

Argazkiak eskaneau eta digitalizau bezain laster, itzuliko dira. Horretarako, Udala argazkiak itxi dauzanagaz ipiniko da hartu-emonetan.

Argazkiok Udalak bideratutako jarduera, argitalpen, erakusketa eta beste ekitaldi batzuetarako erabiliko dira.



Lemoa gaur egun.

## ARRATIA

# Korrikan parte hartzeako asmoa adierazo dabe interneteko gure inkesteari erantzun deusienak

### Erredakzinoa

Aurreko inkestan irakurleai itauntzen geuntsen ea Korrikan parte hartzeako asmoa daukien. Erantzun dabenen % 91,67k baiezkoa emon dabe. Gehienak, modurik aktiboenean, gainera; izan be, % 75ek erantzun dabe eskualdean galapan egingo dabela, Bilbora amaierako jaira joango dirala eta beste modu baten be hartuko dabela parte. Parte hartuko dauan beste % 8,33 Bilbora joango da amaierako jaira.


### Pasealekuak

Gure eskualdean hainbat pasealeku dagoz herri berean edo herri batetik bestera oinez joatea ahalbideratzen dabenak. Batzuk aitzatearren, hor doguz

Zeanuri-Areatza, Areatza-Artea, Artea-Igorre, Igorre-Dima, Lemoa-Bedia eta abar lotzean dabezan espaloi zein auzune arteko bideak. Oraingoan gure itauna zera da: erabilten dozuz oinezko bide seguruak herri batetik bestera joateko?

Eta erantzun posibleak:

- Inoz bai.
- Batzuetan.
- Sarri.
- Inoz ez.



## XIX. KORRIKA

# Korrika 19, Urepeletik Bilbora, Arratiatik!

Tipi-tapa... tipi-tapa... laster da Arratian Korrika 19. Horretarako, ordea, abiatu egin behar. Aste honetan, martiaren 19an, eguenean, hasiko da Korrika 19 Urepelen, arrastiko 17:00etan.

Dana dago prest Urepelen Korrikari hasikerea emoteko, argi dago egitaraua begiratuta.

**Arratiako AEK**

Hauxe da Urepeleko egitaraua:

**11:00**etan, ikusgarria.

**11:00**etatik aurrera, kaleko animazioak: Gaiteroak, Ziganteak, Zaba-

leta anaiak, Ostatu ibiltaria.

**13:00**etatik **16:00**etara, tailerrak Oreak zirkugaz.

Eguerdian, ezker paretan (frontoian) Bazkari herrikoa, Nat eta Watson, Ibarreko bertsolariak: Battitt

Crouspeyre, Jean Louis Laka eta Mixel Aire. Kantariak: Xendarineko ahizpak, Menditarrak.

**16:00**etan, kantaldia plazan, Ibarreko kantariak, Aire ahizpak eta Korrika 19 kantua.



Km	Herria	Eguna	Ordua	Eroalearen izena	Km	Herria	Eguna	Ordua	Eroalearen izena
2255	Ubide	zapatua	18:20:36	Ubideko herria	2281	Arantzazu	zapatua	20:34:30	Elizportaleko Gazte Asanbladea
2256	Ubide	zapatua	18:27:06	Ubideko herria	2282	Arantzazu	zapatua	20:37:06	Arantzazuko Sortu
2257	Ubide	zapatua	18:33:36	Otxandioko Udala					Arginatx Mendi Taldea
2258	Ubide	zapatua	18:40:06	Otxandioko herria					Arantzazuko Kultur Batzordea
2259	Zeanuri	zapatua	18:46:36	Otxandioko herria	2283	Igorre	zapatua	20:41:00	Institutuko Tranbia Txiki Guraso Elkartea
2260	Zeanuri	zapatua	18:56:21	Otxandioko herria	2284	Igorre	zapatua	20:44:54	Arratia Institutua
2261	Zeanuri	zapatua	19:06:06	Madrileko kuadrila	2285	Igorre	zapatua	20:47:30	Igorreko Eskolea
2262	Zeanuri	zapatua	19:15:51	Italiako kuadrila	2286	Igorre	zapatua	20:50:06	Igorreko Eskolako Guraso Elkartea
2263	Zeanuri	zapatua	19:22:21	Dimako Udala	2287	Igorre	zapatua	20:52:42	Zertu Kultur Elkartea
2264	Zeanuri	zapatua	19:28:51	Bildu Dima	2288	Igorre	zapatua	20:55:18	Arratiako Bertso Eskolea
2265	Zeanuri	zapatua	19:33:44	Jentilzubi (Dima)	2289	Arantzazu	zapatua	20:57:54	Luis Iruarrizaga Abesbatza
2266	Zeanuri	zapatua	19:38:36	Luis Prieto Lagun taldea (Dima)	2290	Arantzazu	zapatua	20:59:51	Arantzarte Dantza Taldea
2267	Zeanuri	zapatua	19:41:51	Dimako Gaztetxea	2291	Arantzazu	zapatua	21:03:06	Arantzazuko Udala
2268	Zeanuri	zapatua	19:45:06	Andraizea (Dima)					Arratia Futbol Kluba
2269	Zeanuri	zapatua	19:50:18	Gazteberri jantza taldea (Dima)					Ormazabal
2270	Zeanuri	zapatua	19:55:30	Dimako Bertso Eskola	2292	Artea	zapatua	21:09:36	BATZ S Koop
2271	Areatza	zapatua	19:59:24	Txumuluxueta Pelota Elkartea (Dima)	2293	Artea	zapatua	21:12:51	Arratiako EAJ-PNV
2272	Areatza	zapatua	20:02:00	Dimako Eskolea	2294	Artea	zapatua	21:16:45	Arratiako Musika Eskolea
2273	Areatza	zapatua	20:04:36	Dimako Guraso Elkartea	2295	Artea	zapatua	21:22:36	Bikote Alaiak
2274	Areatza	zapatua	20:07:51	Dimako Udala	2296	Artea	zapatua	21:29:06	AEK-ko barnetegi ibiltaria
2275	Artea	zapatua	20:11:06	Zeanuriko Udala	2297	Zeberio	zapatua	21:38:00	Zeberion honeek eroango dabe lekukoa:
2276	Artea	zapatua	20:13:42	Zeanuriko Eskolea	2298	Zeberio	zapatua		Zeberioko Eskolea eta Guraso Elkartea,
2277	Artea	zapatua	20:16:57	Zeanuriko Guraso Elkartea	2299	Zeberio	zapatua		Zeberioko Udalak, Keima-k, Austarri
2278	Artea	zapatua	20:19:33	Zeanuriko Sortu	2300	Zeberio	zapatua		Mendi Taldeak, Gazteak eta Ezker
2279	Artea	zapatua	20:24:45	Suzien Mendi Kluba	2301	Zeberio	zapatua		Abertzaleak. (Km zehaztu barik)
2280	Arantzazu	zapatua	20:31:15	Zeanuriko txistulariak	2350	Bedia	domekea	2:56:54	Bediako Sortu
				Arratia Motor Taldea	2351	Bedia	domekea	3:00:48	Etterat
				Peña Beñat Etxebarria	2352	Bedia	domekea	3:04:42	Zementoseko LAB
				Peña Gorbeako Gurutzea					Bediako Udala
				Bildu Areatza	2353	Lemoa	domekea	3:08:36	Harriketarrak Gazte Asanbladea
				Areatzako Udala	2354	Lemoa	domekea	3:12:30	Durundi Barri Dantza Taldea
				Areatzako Guraso Elkartea	2355	Lemoa	domekea	3:16:24	Lemoako Eskolea
				Areatzako Kultur Kirol Batzordea	2356	Lemoa	domekea	3:20:18	Lemoako Udala
				Igorreko Agrarioak					Harrobi Futbol Kluba
				Aldatuz Plataformea	2357	Lemoa	domekea	3:24:12	Lemoako Esku Pelota Elkartea
				Arteako Sortu					Lemoako Sortu
				Arteako Guraso Elkartea					Opel Ibaigane
				Arteako Udala					
				Gorosti					
				Igorreko Pelota Eskolea					
				Ganzabal Mendi Taldea					
				Lemoako Korala					





# Korrika biziteko beste modu bat

**16:40**ean ekitaldia: Urepeleko Korrika batzordearen berbaldia. Bertsolariak: Mixel Aire Xalbador, Maddalen Arzallus eta Aimar Karrika. AEKren hitzaldia.

**17:00**etan, Korrikaren hasikerea.

**22:00**etan, kontzertuak Baigorriin: Aguxtin Alkhat eta Zezenaren taldea.

Arratiako AEK-k hasikerara, Urepelera, autobusa antolatu dau. Zeanuritik urtengo dau goizeko 09:00etan eta herrietan jentea batuko dau, eta buelta, ostera, gaueko 21:00etan egingo da. Izena emon gura dauanak Kubulu Euskaltegia deitu behar dau (94 631 56 57).

Hasi eta hamaika egunen buruan Bilbon amaituko da eta Bizkaiko uriburura bidean Arratia zeharkatuko dau euskarearen aldeko lasterketa erraldoiak. Martiaren 28ko arrasti eta iluntzean, zapatuan, beraz, gehiena, Ubide, Zeanuri, Areatza, Artea, Arantzazu, Igorre, Artea, Zeberio; eta zapatutik domekarako gauean, zati baten, Bediatik eta Lemoatik, hain zuzen be. Hauxe da 19. Korrikak Arratian egingo dauan ibilbidea.

Herrietan eguna alaitzeko eta girotzeko hainbat ekintza egingo dira egun horreetan.

Arratiako AEKtik, Gorka Barrenexea, Igor Elordui eta Joseba Irazabal joango dira Korrikara, hamaika egunez, hasi eta amaitu, antolakuntza parte hartzean: lekukoa, lekuko eroaleak eta korrikalari guztiak zaintzean. Gainera, Korrikaren ohiko gunez gainera, Arratiako twitter kontutik Arratiako AEK-ko hiru kide honeen ibiliak segidu ahal izango dira Korrikaren furgonetatik bertatik: @ArratiakoAEK.

<http://www.korrika.eus>  
[www.facebook.com/aek.euskalakari](http://www.facebook.com/aek.euskalakari)  
[twitter.com/EuskalakariAEK](https://twitter.com/EuskalakariAEK)  
eta Arratian:  
[www.facebook.com/korrikaarratian.euskalakari](http://www.facebook.com/korrikaarratian.euskalakari)  
[twitter.com/ArratiakoAEK](https://twitter.com/ArratiakoAEK)



Arratiako AEK-ko Gorka Barrenexea eta Igor Elordui Korrika 19ko furgonetatik biziko dabe Korrika. Ze, Igorren esanetan, furgonetan bizi egiten da Korrika. Bigarren aldia da bientzat eta Kubulu Euskaltegiko Joseba Irazabal be furgonetan joango da.

Igor Elordui hogetaka urte daroaz AEKn. Bertan egin dau bere ibilbide profesional guztia. Atzen hamabi urteetan AEK-ko komunikazio arduraduna izan da, eta orain hasieran legez, eskolak ematera buelta dau. Jatorriz Erromokoa da eta Larrabetzun bizi da baina Igorreko Kubulu Euskaltegian ematen dauz eskolak.

Gorka Barrenexea Igorrekoa da eta bertan hasi zan klaseak ematen, Igorren eta Diman, orain dala 6 urte inguru. Orain Ahize izeneko sailean dabil beharrea, AEKren hizkuntza aholkularitzan, Lemoan eta Portugaleten, hain zuzen.

## Erredakzioa

### Zenbat furgoneta dago Korrikari?

**Gorka Barrenexea:** Furgoneta bi dagoz. Bat atzean, "ordezkoa" eta beste bat aurrean "titularra". Aurrekoa ez da geldituz; atzekoa badaezpada dago. Edozein arazo egon ezkerre, atzeko furgonetea aurreko furgonetearen lekuan ipintzen da. Logistika aldetik zortzi lagun doaz bananduta furgonetan bietan. Zortziko talde horiek eroan behar dauz furgoneta biak. Furgoneta bien artean joaten da jentea eta pankartea. Atzean bigarren furgonetea eta AEK-ko komunikazio taldeko bat.

**Igor Elordui:** Talde bi antolatzen dira horretarako, zortziko talde bi eta talde bakotzak 14 orduko txanda bi egingo ditu. Gogorra izaten da sarritan, ordu asko diralako eta loa be aldatzen dalako.

Orduan zortzikote horren eginkizuna da, pankartak ipini eta kendu, lekukoa beti bistan euki, korrikalariak apur bat jagon, ze trafikoa egoten da leku askotan eta gainera leku batzuetan arriskutsua izaten da. Mikrofonoagaz be jentea animau, musikea ipini, zeozer pasetan bada anbulantziara eroan, umeak beti galtzean dira eta umeen kontua hartu... Furgoneta horren aurretik lurraldeko kotxea joaten da norabidea marketan. Bizkaian Bizkaikoa, Gipuzkoan, Gipuzkoakoa...

Prensa taldea atzean joaten da. Prensa taldeak beste kotxe bi ditu eta kotxe horreetan joaten da AEK-k propio jartzen dauan prensa taldea, normalean hiru lagun, eta gugaz batera datozen kazetariak: Garako kazetaria, Berrioko kazetaria, Deiako kazetaria, Correako, Euskadi Irratia, Noticias taldekoa, EITB eta Hamaika Tebistako kazetariak. Horreek fijo izaten dira.

Horreetako batzuk be inoz furgonetan joaten dira, ekipoetan sartuta, gaua be kubridu gura dabelako. Prensako

jarduna eguneko izaten da, baina Hamaika Tebistak, esaterako, gura izaten dau gaueko irudiak be hartu.

### Hamalau ordu jarraian egiten dabe furgonetan doazenak?

**G. B.:** Bai, hamalau dira baina egokitzen doa. Hamalau, hamahiru, hamabi, hamalau... horregaz jolastuten da logistika aldetik aldaketak egiteko eta gero egun aldaketea bermatzeko talde biei. Eguna eta gaua ikusteko.

**I.E.:** Eta hor kontutan hartu behar da, atzen orduetan, lo egingo dozun lekura joan behar dala. Eta gero non hartuko dozun Korrika be hartu behar da kontuan. Bitxia izaten da, ze Korrika ez danez gelditzen, talde aldaketea galapan egiten da. Puntu kilometriko baten geratu eta batzuk aurreko furgonetatik atzeko furgonetara pasetan dira arropaladan; batzuk bajatu, besteak igo...

### Zelan antolatzen dira furgonetako taldeak?

**I.E.:** Zortzi lagun ofizial dira. Eta zortzi laguneko talde horretan arduradun bat dago. Taldea osotuteko ardura berea da. Taldean hainbat jente dago AEKn behar egiten dauana eta beste batzuk sasoi baten AEKn ibili ziranak. Guk esaten dogu ez deusela AEK-ko izateari ixten, nahiz eta gero beste esparuetan ibili.

Zortzikote horretan argazkilari bat egoten da AEK-k ipinten dauana, eta gero horreez aparte, Hamaika Tebistako lagunak etori leitezke. Korrika eskualde baten sartzean danean, Arratian berbarako, akaso, BEGIRUKO kazetaria sartuko da. Mikrofonoan eskualdea ezagutzen dauan baten bat egotea be komenidu da. Atzenean, suertau leiteke furgonetan hainbat lagun egotea.

**G.B.:** Uriburuetan, batez be Gasteizen, furgonetea pasau aurretik eta bigarren furgonetearen ostean be, uriko bidegurutzek zainduteko he-

riko bizikleteroak edo egoten dira. Hor aparteko lana egoten da, batez be Gasteizen, handiena dalako.

**I.E.:** Iparraldean motorzaleak egoten dira bidegurutzek zaintzean. Parte

latuten, Korrika pasetan dan eguneko bezperan egiten dan apainketan, lagunduten dau Korrika laguntzaileak egiten eta beste gauza askotan.

**I.E.:** Eta hori egiten dabe euskaltzale eta Korrikazale diralako. Eurak barik ezingo geunke Korrika antolatu. Korrika AEK-k antolatzen dau, baina ez da AEKrena, herriarena da.

### Talde berean joango zarie furgonetan?

**G.B.:** Bai, biok talde berean. Nire bigarren urtea da furgonetan.

**I.E.:** Nirea be bai. Furgonetan lehengoz 14. Korrikan hartu neban parte, 2001ean. Harrezkero, komunikazio arduraduna izan nazana lez, Korrika 13, 14, 15, eta 17 prentsan egin nebazan. Beti euki dot buruan komunikazio arduradun izateari ixten neutsanean, beste behin behintzat, furgonetan egin behar nebala. Oso oroitzen onak daukadaz. Prentsan zagozanean kontetan zoaz, ez biziten. Furgonetan bizi egiten da Korrika.

### Zein zati tokau jatzue?

**G.B.:** uste dogu Arratia gure taldeari tokau jakola, baina ustea da, ez dakigu. Ez dakigu geugaz hasiko dan Urepelen, ezta geugaz amaituko dan ala ez.

**I.E.:** Korrikan zer pasetan dan jakiteko furgonetan egon behar da. Furgonetan ikusten dozu nork hartzean dauan



Igor Elordui eta Gorka Barrenexea.

hartze handia egoten da. Ez bakarrik aurretiko antolaketan, baita karreran bertan be.

### AEK-ko ia irakasle guztiak hartuko dabe parte Korrika antolatzen, ezta?

**I.E.:** Bai. Bakotzak bere ardura dauka. Korrika Batzorde Nazional bat dago eta Korrika bat amaituten danerako beste Korrika bat antolatuten hasten gara. Esaterako, lema, mezua, omendua, non hasi eta non amaitu, hori pasa dan urtetik dakigu. Korrika Batzordeak gauza horreek egiten ditu. AEKide guztion lana da Korrikalagunak egitea, kuestazioak, errepidea margozte, kilometro zenbagailuak ipintea...

**G.B.:** Korrika Batzordeaz gainera, badagoz herri eta eskualde mailako batzordeak. Eta honeen lana be itzela da. Arratia mailako batzordeak, berbarako, hainbat kontutan lagunduten dau: Korrika Kulturalako ekintzak anto-

lekukoa eta bizipen guztiak furgonete-  
tik ikusten dira. Hor egon behar da.

**G.B.:** Niiri deigarriena egiten jatana, da edadeko jentearen poza. Edadeko persona batek petoa aldean ipini, bere osasun arazoak alde batera itxi eta badoala galapan ikustea berezia da. Ardura osoz, petoa ipini eta galapan egiteko daukan indar hori ikustea.

**I.E.:** Nik aitaturko neuke, harrigarria dala Korrika bera. Hamabi-hamaika egun eta gau, lekukoa pasetan. Eta beti dago baten bat lekukoa hartzeako. Bardin da, goizeko hirurak, ez dakit nongo mendi puntan eta euritan. Beti dago jentea. Eta jentea gura daualako egoten da, ez obligazinoz. Harrigarria da.

Harrigarria be bada zelan hartzean gaituen Korrikaren antolakuntza gagozanok. Jenteak pastak ekarten deuskuz edo kafesne beroa. Asko estimatzen da.

## AIZKOREA

## Atutxa II. eta Mugertza II. Binakako Urrezko Aizkoran txapeldun

Irati Urien

Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertzak irabazi dabe Eusko Label Txapelketako Binakako Urrezko Aizkorako finala. Bigarren urtez jarraian garaipena errepikatuta lortu dabe dimoztarrak eta mutrikuarrak. Jon Rekondo eta Ander Erasun nafarrak euki ebezan aurkari Azpeitiko Izarraitz pelotalekuan hilaren 8an. Hogeta hemeretzi segunduko aldeagaz irabazi eben Atutxa II.ak eta Mugertza II.ak. Sei modalidatan hamaseina mozketak egi-tea zan bete beharreko lana eta txapeldunak 25'20"ko denporan osotu eben ariketea. Dimakoak kontau dauanez, Urrezko Aizkorako Binakakoan irabazi dauan



Atutxa eta Otaegi txapelagaz.

bosgarren txapela da aurtengoa, "Ranking-ean Donato Larretxeagaz enpate, berak be bost txapel

daukaz binakakoan eta. Nire lehenengo biak beragaz irabazi neban zainera".

## TXIRRINDULARITZEA

## Euskadi, Espainiako txapeldun ziklismo egokitutako abiadura modalidatean

Erredakzioa

Oskar Garro Igorreko ziklistak laugarren postu bi lortu ditu Espainiako Txapelketan eta Euskadi taldeagaz txapeldun izan da abiadura moda-

lidadean. Espainiako Txapelketea zezeilaren 28 eta martiaren 1eko zapatu-domekan jokatu zan Galapagarreko (Madril) belodromoan.

Oskar Garro, Amador Granados eta Alfonso Postigok eroan eben

urrezko domina taldea abiadura modalidatean eta brontzea be Euskadi B taldeak lortu eban.

Banakakoan, barriz, Oskar Garro Igorrekoak laugarren postu gazi-go bi lortu ebazan. Lehenengoa zapatuan izan zan, jarraitze modalidatean eta bestea hurrengo egunean, kilometro bateko lasterketan. Bakarkako dominarik lortu ez arren, pozik agertu da Igorrekoa laugarren postu bi horreekaz eta taldekako urreagaz. "Ondo joan jatan aste-goiena" balorau eban.

## Munduko Kopa prestatzen

Orain maiatzeko lasterketak prestatzen dabil Garro, "eta bagilean Munduko Kopa daukat. Ea aurten be ondo joaten dan dana eta ondo helduten nazan" esan eban.



## ESKALADEA

## Itziar Zabalak irabazi dau Espainiako Kopako lehenengo proba

Erredakzioa

Urte bi lehiatu barik emon osotean, Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarrak Alacanten jokaturako Espainia eta Autonomietako Kopako bloke modalidateko lehenengo proba irabazi eban martiaren 7an.

Beste hiru probak osotuten dabe Kopa hau. Hurrengo proba Tarragonan izan zan hilaren 14an; hirugarrena, Madrilen azaroaren 28an eta atzena Granadan izango da abenduaren 5ean. Bigarren proban bigarren postua lortu eban dimoztarrak.

Sano pozik dago dimoztarra garaipen honeguz. Ez bakarrik urte bi lehiatu barik egon dalako, baita be Absolutu Mailan lehiatu dan lehenengo aldia izan dalako.

"Orain arte, Gazte Mailan ibili naz, hau izan da lehenengo aldia adin guztietakoakaz neurtu nazona" dino Zabalak.



Itziar Zabala podiumean.

## MENDIA

## "Sadpara" alturako gaitzak jota behe kanpalekura eroan dabe

Erredakzioa

Nanga Parbat-eko tontorrerako lehenengo saioa egin eben Alex Txikonek eta bere espedizino ki-deak martiaren 13an, baina ez eben arrakastarik izan. Gitxi gorabehera, 8.000 metroko altueran egozala, orientazio akats bat dala eta, laugarren kanpalekura itzuli behar izan ziran. "Hanka sartu dogu, erratu egin gara. Gauz eta ilunpetan igon beharreko korridorea pasau dogu konturatu barik. Gora egin ordez, trabeska jarraitu dogu" esan eban Txikonek bere blogean azaltzen danaren arabera.

Hurrengo egunean tontorra zapaltzeko beste saiakera bat egiteko asmoa eukien Txikon, Nardi eta "Sadpara"k, baina Ali "Sadpara" eskalatzaile pakistaniarrak alturako gaitzaren sintoma larriak euki ebazan. "Ali lehenbailehen jeitsi behar dogu, altuera galdu behar dogu" komunikau eutsen Txikonek behe kanpalekukoai. Holan, laugarren kanpalekutik behe kanpalekura jeitsi behar izan ziran hirurak atzenengo honen deskantsua hartzeako.

Saiakera honen ostean, auktora gitxi dagoz Txikonek eta bere espedizinkideak negu honetan tontorra zapaldu dagien.

**Okindegia**  
+ Ke... PAN  
Etxean bertan egindako pastelak

**IGORRE**  
Lehendakari Agirre 11  
94 656 65 52  
Sabino Arana 35  
94 657 3898  
**AREATZA**  
Goiko kalea 8  
94 608 90 47

tel: 04 631 60 05 • email: info@aramotz.com

**ARA OTZ**  
Landetxea • Jabetxea

Barrio Ugareana 2 zk - 48141 Dima - Bizkaia www.aramotz.com

**OPEL**

**Ibaigane, S. Coop. Ltda.**

Estaziõna, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Telfa. 631 33 30 - 631 31 31  
Fax 631 36 15

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitetz bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburetan pintxo bereziak

**ARRATIKO ZEKORRAK**

arratiko.zekorak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Airezatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**24h**  
Eguneko Ogiak

**EGUNEKO OGIA**  
vending pan

**IGORRE**  
Lehendakari Agirre

**FISIK**

FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

## TXIRRINDULARITZEA

# Arratiako Ziklista Eskola neska-mutilentzako aukerea

### Irati Urien

8 urtetik 14 urtera arteko neska mutilentzako aukerea da txirrindularitza eskolearena. Entrenamenduak eguazten eta barikuetan izango leitez, trafikorik bako zirkuituan, Igorreko futbol zelaiaren inguruan. Errepidea zein ziklo-kros apurtxo bat be landuten dabe, eta ginkana batzuk be egiten dira umeak jolasteko. Urtean hamasei lasterketa egingo

dira, Bizkaia guztian zehar, beti be baxotxa bere adinekoakaz eta zailtasun bakoak, errezak. Lasterketok maiatza, bagila eta urri lehenengoan izaten dira. Karrera guztietan saritxoren bat edo beste jasoten dabe umeak. Dana doban da; neska-mutilak eroan eta ekarteko ziklista alkar-tea bera arduratuten da, erropa guztia be eurak emoten dabe: ipurzaina, maillota eta kaskoa. Bizikletea norberak euki ezker



Ander Gorospe eta Mikel Zarrabeitia Ziklista Eskolako umeakaz.

bentajea ei da baina bestela hori be itxi egiten da. Fitxea egiteko nortasun agirirako argazki bat eta familia liburuko jaiotza orriaren fotokopia bat baino ez da behar, ezelango kostu barik. Hiru-lau laguntzaile dagoz eskolan, tartean txirrindularitza profesional izandako Mikel Zarrabeitia. Helburua umeen kirola bultzatzea da. Ander Gorospe Arratiako Ziklista Eskolako arduradunaren esanetan, adin tarte horretako umeak kirol desbardinetan apuntau behar dira, inoz ez dala eta jakiten non ibiliko dan ondoen eta gusturen. Txirrindularitza bizitza osorako kiroltzat aldarrikatuten dau Gorospek, osasungarria, ekologikoa, ekonomikoa, lagunkidea eta atsegingarria dalakoan.

Ziklista Eskolako umeen kopurua aldatuz joan da urteetan zehar. Hasieran berrogei neska-mutil egozan, momenturik bazuenean, barriz, zortzi bakarrik eta gaurko egunean hamabost dagoz. Halanda be, aurten hogeitik pasauko dirala adierazo dau arduradunak. Kopuru ideala hogeta hamar izango litzatekela be azaldu dau. Zifra horretara heltzeako jentea animau gura dau Gorospek.

## MENDIA

# I. Kolazinoko Mendi Eguna

### Irati Urien

Gero eta hurbilago dago I. Kolazinoko Mendi Eguna. Honezker berrehun dira izena emon dabenak marxa, BTT zein lasterketarako. Marxarako egun berean apuntetea posible izango da, eta lekua egon ezker, beste bi modalidadeetan be bai. Inskripzinoak egiteko epea hilaren 20an amaituten da. BTT modalidadean Julen Zubero txirrindularia apuntau da dagoeneko. Sariak Lukas Zabala bediazarrak egurrean tailautako garaikurrak izango

dira, eta horretatik aparte, enpresak emondako opariak zozketatuko dira. Bai plazako eta bai mendiko antolakuntza beharretan laurogeta bost bat boluntario gogotsu dabiz beharretan, martiaren 28an gerturatuko diranai egun eder bat ziurtatuko asmoagaz. Ahaztu barik jentea oste-ko bazkari eta Jokaldiren erromerian geldituteko animau gura dabe Bediakoak. Edozein informazino www.kolazinokomendieguna.wordpress.com helbidean zein euren facebookean dago eskuragarri.

**I. KOLAZINOKO MENDI EGUNA**  
Bedian, 2015eko martxoaren 28an

**Egitarria / Programa:**  
-08:00: Mendi marxa irteera / Salida marcha a pie  
-09:00: BTT marxa irteera / Salida marcha BTT  
-10:00: Mendi lasterketaren irteera / Salida carrera de montaña  
-13:00: Sari banaketa / Entrega de premios  
-13:30 Parte-hartzaileentzako bazkaria / Comida para los participantes  
-16:00: JOKALDI erromeria / Verbena con JOKALDI

## MOTORRAK

# Ibarra eta Gorospe anaiak podiumean

### Irati Urien

Hasi da Euskadiko Txapelketea motorretan. Dimako Motor Klubeko bost arratiar dagoz parte hartuten bi modalidadeetan; Cross Country eta Enduro. Cross Countryko lehenengo lasterketea Nanclares de la Ocan izan zan, hilaren 7an. Bertan, holantxe gelditu ziran Arratiakoak: Senior Kategorian hogeta hamar urtetik gorakoetan, Iban Ibarra dimoztarrak podiuma egin eban bigarren postuagaz, hamahirutik. Maila berean lehiatu zan Dimako Josu Gorospek seigarren postua

lortu eban. Amaituteko, hogeta hamabost urtetik gorako betaranoetan podiumera igon zan Pedro Gorospe dimoztarrak, hirugarren gelditu zan hamabitik. Jon Zuazo igorretarrak debuta egin eban hogeta hiru urtez azpikoetan eta hamalagarren postua lortu eban hogeitik. Kategoria bardinean eta estreinekoz hau be, hamabosgarren gelditu zan Zeberioiko Asier Zugazaga. Aprilaren 5ean izango da hurrengo Cross Country lasterketea, Villarcayon.

Enduro modalidadeari jagokonean, Zallan izan zan lehenengo proba, martiaren 15ean. Arratiarren artean Josu Gorospe lehiatu zan bertan, eta baita podiuma lortu be. Senior Trofeo Mailan hirugarren egin eban hamabostetik. Modalidade honetan Elgoibarren lehiatuko dira hurrengo, aprilaren 12an.



Josu Gorospe Zallan.

## TRINKETEA

# Kadeteetan Dima txapelkunorde Bizkaiko Txapelketan



### Erredakzinoa

Abadinon jokatu ziran Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalak martiaren 13an.

Kadete mailako finalean Dimako Txumuluxueta eta Sopolako Kureneko pelotariak neurtu ziran. Partidua Kurenekoak irabazi eban eta Txumuluxueta Lur Ziarrusta eta Peio Artola txapelkunorde izan ziran.

Ziarrusta eta Artola ez ziran izan eskualdeko pelotari bakarrak Bizkaiko trinketeko finalean. Izan be, eskuz binakako nagusien lehen mailan, Abadinoko Tomosolo taldean, Joseba Bilbao lemozatarrak jokatu dau. Finalean, Tomosolo taldeko Gandiaga eta Bilbao Kurene taldekoak nagusitu jakien eta txapela lortu eban.

**LABUR BIRA**  
2015  
FILM LABURREN XII ZIRKUITUA  
MARTXOAREN 4tik 28ra

**TOKIA:** Igorreko Lasarte Aretoa  
**ARETZAKO UDAL ARETOA**

**EGUNA:** Martiak 20 Igorren  
Martiak 27 Areatzan

**ORDUA:** 20:00etan  
19:00etan

**ANTOLATZAILEA:** Zertu Kultur Elkarte

topagunea.eus/laburbira


ANTOLATZAILEA: euskaltzateen topagunea  
BARNESEAK: GIPUZKOAN  
BFA DFB  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Aretzak Foru Aldundia  
Departamentu Foru de Aretzak  
LAGUNTZAILEA: TOKIKOM

## BERTSOLARITZEA

## San Josetako bertso saioa hilaren 19an Igorren

## Irati Urien

Korrika Kulturalaren barruan, badator 2015eko San Josetako bertso saioa. Martiaren 19an, San Jose egunean, iluntzeko 19:00etan, laukotea izango da Igorreko Lasarte Aretoan: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Jon Maia eta Amets Arzallus. Aurten go ediziorako zeozer desbardi-na prestatu dabe. Antolatzaileen esanetan, kartelaren koloreak eta egitureak jokoa emongo dau saioan zehar. Aspaldiko plaza dogu San Josetako Arratian, zaharrena seguruenik eta urtero lez plaza hori beteteko asmoa dago aurtan be.



San Josetako  
**bertso saioa**  
Igorren




## KULTURA HAMABOSTALDIA

## Martiko bigarren hamabostaldi honetan, kulturak hartuko dau protagonismoa

Igorreko Udalak eta Institutuak, hilaren 16 eta 30aren artean, Kultura Hamabostaldirako 30 ekintza baino gehiago antolatu dabez: batzuek Institutuko ikasleentzat eta beste batzuek publiko zabalarentzat. Ignazio Zubizarreta eskoleak be, bere aste kulturala antolatuko dau hilaren 23tik 27ra.

## Erredakzioa

Institutuan Irati Astondoak Herri Kirolen eta bertsolariaren gaineko berbaldia emongo dau; Aitor Bergarak Fisikaren gainekoa, eta Jasone Osoro idazleak, Ruth Linaza sokatiralariak eta sare sozialen gainean Jon Gomezek, egingo dabe berba ikasleakaz. Hamabostaldian, musikeak be bere lekutxo izango dau, Gaizka Insunzaren berbaldi



musikalagaz eta institutuko ikasleen musika emonaldiagaz. Biajeak eta kirola ez dira faltauko. Eskolakoak, barriz, kantagintza, antzerkigintza eta bertsoagintza landuko dabez Lasarte Aretoan martitzenean. Hurrengo eguna matematika eguna izango da eta barikuan, beste gauza batzuen artean, Korrikarako antolaketea egingo dabe.

**Bertsoak, filmak eta liburu aurkezpena publiko zabalarentzat** Institutu eta eskolako ekitaldi batzuk Lasarte Aretoan izango dira, baina hemen publiko orokorrari zuzendutako beste ekintza asko egongo dira. Publiko osoari zabalik dauan egitarau honetan, aitatu behar da San Josetako bertso saioa; Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Amets Arzallus eta Jon Maia bertsolari handiak kantauko dabe eta.

Korrika, 28an pasauko da, eta egun horretarako programazio berezia antolatuko dabe Igorren. Eta hilaren

30ean Timoteo Atutxaren gainean ateratako liburuaren aurkezpena egingo da. Hauxe da egitaraua:

**Martiak 19, eguna**

19:00etan, San Josetako bertso saioa. Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Amets Arzallus eta Jon Maia.

**Martiak 20, barikua**

20:00etan, Laburbira. Film laburrak euskeraz.

**Martiak 21, zapatua**

22:00etan, zinea *Las ovejas no pierden el tren*.

**Martiak 22, domekea**

17:00etan zinea, *Annie*. 19:30ean, zinea *Las ovejas no pierden el tren*.

**Martiak 26, eguna**

*Kalesareak* dokumentala.

**Martiak 27, barikua**

17:30ean, antzerkia *Izar eta Zenaida*.

**Martiak 28, zapatua**

Korrika Igorretik.

**Martiak 29, domekea**

17:00etan, zinea *Into the Woods*. 19:30ean zinea *Whiplash*.

**Martiak 30, astelehena**

19:30ean Timoteo Atutxaren gaineko liburuaren aurkezpena.

## ANTZERKIA

## Alkartasuna, super poderea da Izar eta Zenaida antzezlanean

## Erredakzioa

Eidabe produkzioak-ek Galder Perez-en *Izar eta Zenaida: indar magikoa* antzezlan ekarriko dau Igorreko Kultur Etxera, hilaren 27an, arrastiko 17:30ean. Aktoreak software interaktibo eta musikearen laguntzeagaz, alkartasunaren balioa erakutsi gura dauan obra hau taularatuko dabe. Ikuskizunak Iparra eta Hegoaren arteko laguntasuna eta ulermena ezinbestekoa dala azpimarratzen dau.

Izar eta Zenaida neska bi dira: bata euskalduna eta bestea

kubatarra eta egun baten ikusten dabe mundua zati bitan apurtzen dagoala. Keatorrek pertsonen kontrako mendeku hau ipini dau martxan gure planetako baliabide guztiak agortzeaz dagozako. Baina Izar eta Zenaida konturatuko dira alkerreri eskua emonda super podereak daukiezala. Eskua alkerreri emoten deusienean, munduaren suntsitzea geratzeko gai dira, munduari kolorea itzultzeko, laitasunez biziteko...

Umeentzako antzerkia da, bere estetika eta musikearen bitartez ondo pasetako aukerea emoten dauana.



*Izar eta Zenaida* antzezlan.

## ZERTU

## Zertu Kultur Elkarteke urteko Batzar Nagusia

## Erredakzioa

Zezeilaren 27an, Zertu Kultur Elkarteke egindako urteko Batzar Nagusian, erabagi garrantzitsua hartu dabe Zertukideak. Alkarte honek 45 kide izan ditu orain arte, eta, horreez ganera, aldizkari hau babesten daben 342 begitulagun daukaz. Kontua da, aurtengo batzarrean, begitu-lagun guztiak Zertuko kide bihurtzeko ebatzia hartu dala. Hau da, hemendik aurrera bai Zertukideak eta bai begitu-lagunak eskubide berberak izango ditue, eta horrek dakarren ondorioz azpimarragarriena da urteko Batzar Nagusian parte hartzeko eta alkarrearen eta aldizkariaren gainean erabagiteko eskubidea eukiko dabela.

Goian aitaturatutakoaz aparte, beste gai batzuk be landu ziran bertan. Esate baterako, 2015 urteari begira, besteak beste, sare sozialetan



Zerturen logoa.

presentzia handitzeko beharra nabarmendu zan, eta, era berean, marketin kanpaina bat egiteko, zuzendaritza batzordea indartzeko eta alkarrearen eta aldizkariaren funtzionamentuan hobekuntza batzuk egiteko asmoa azaldu zan. Begitu-lagunak gehiago egitea be ezinbestekotzat jotzen dau alkarrean.

## FILM LABURRAK

# Areatzan eta Igorren Laburbira zirkuituko filmak proiektuak dira



Arconada film laburreko fotograma bat.

### Erredakzioa

Euskaltzaleen Topaguneak Laburbira film laburren hamabigarren edizioa ipini dau martxan. Holan, martiaren 4tik 28ra, 29 herritan, zortzi film labur proiektuak dira. Igorren, hilaren 20an, arrastiko zortziretan Lasarte Aretzan, edo Areatzan, martiaren 27an, zazpiziretan ikusi ahal izango dira zirkuitu honetako filmak.

Saio bakotxean zortzi ikus-entzunezko labur eskeiniko dira, 2013an eta 2014an sortutakoak, ordu eta laurden inguruko emonaldietan. Koldo Almandozen *Hubert Le Blonden azken hegaldia*, Igone Arreitunandiaren *Ein land*, Kepa Errastiren *Aitona Mantango-*

*rria*, Asier Altunaren *Zela Trovke*, Asier Urbietaren *Arconada*, Kote Camachoren *Don Miguel*, Ixone Aroma, Aritz Lasarguren eta Asier Veraren *Zaunk!* eta Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen* dira film horreek.

### Topagunea eta Zertu

Laburbira, Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dau herriz herriko euskaltzaleen alkarkez alkarlanean, Arratian Zertu Kultur Elkarteagaz, eta Eusko Jaurlartzaren eta Foru Aldundien babes dauka. Zirkuituak euskerazko ikus-entzunezko produkzioa ezetu arazo eta herrietako kultur eskeintza aberasteko helburua dauka.

## BERTSOLARITZEA

# Arratia/Txorierrri taldeak irabazi dau BBK Sariketako lehenengo kanporaketea

### Erredakzioa

Arratia/Txorierrri taldeko bertsolari gazteak finalerdietarako sailkatu dira. Igorreko Lasarte Aretzan jokatutako Bertsolari Gazteen 23. BBK Sariketaren lehenengo kanporaketea martiaren 10ean eta Arratia/Txorierrri 393 puntugaz irabazi eutsan Bilboalde taldeari. Honek 364 puntu lortu ebazan. Igorreko saioan aurkezlea Arrate Gaztelu Agirre izan zan eta epaimahaia Juanjo Respaldiza, Miriam Juaristi eta Beñat Romerok osatu eben.

18 urtera artekoetan, Arratia/Txorierrri taldean, Leire Amenabar Larrañagak, Lur Ziarrusta Intxaurtza dimoztarrak eta Jon Larrabide Fuldainek kantatu eben. 24 urtera artekoetan, barriz, Malen Amenabar Larrañagak, Irati Astondoa Zuluaga zeanuriztarrak eta Illart Gumuzio Larrazabal Igorrekoak.

Saioko lehenengo kanporaketea irabazita, bigarren fasera pasauko da Arratia/Txorierrri taldea, eta martiaren 18an Lea-Artibairen kontra jokatuko dau finalerdia Markina-Xemeingo Lea-Artibai ikastetxean.

### Bertsolari Gazteen 23. BBK Sariketean

Zazpi eskualdetako 50 bertsolarik hartzean dabe parte aurtengo txapelketan. Arratiakoak Txorierrrikoak batera egin dabe taldea sei bertsolari behar diralako talde bakotxean. Lea-Artibai, Busturialde, Uribe Kosta, Enkarterriak, Durangalde eta Bilboalde dira parte hartzean daben beste taldeak.

Finalerdiak martiaren 17an Lea-Artibain eta 24an Sopelan izango dira. Finala martiaren 26an izango, arrastiko zazpiziretan, Bilboko Kafe Antzokian.



## DUNBA

# Zeanuriko eskolako konposta

Aurten, Zeanuriko eskolan konposta egiten hasi gara gure ingurunea jagoteko eta holan zabor gitxiago sortzeako.

### Zeanuriko eskolako 5. mailako ikasleak

Igaz, konpostagailu txiker bigaz hasi ginan, baina janlekuko hondakin organiko guztiak konpost bihurtuteko ez ziran egokiak eta horregaitik konpostagailu handiak hasi gara beharrean.

Urri bigarrenaren amaierako bariku baten, konposta egiten adituak diran persona bi etorri ziran gure eskolara konposta zelan egiten dan erakusten. Aditu honek materia marroia (lehorra) eta materia berdea (hezea) zer dan eta zelan bereizten dan ikasteko ariketak egin genduzan. Hau ikasi

ondoren konpostagailu bi eregi genduzan, lehenbailehen martxan ipinteko.

Materia marroia egur zati txikerrak edo hostoak izaten dira. Mankomunidadeak ekarten deusku materia mota hau, baina udagoienean gure eskola eta inguruko hosto lehorrak aprobetxetan doguz. Materia berdea barriz, gure hamaiketako soberakin organikoak eta gehien bat janlekuko soberakinak osotuten dogu.

Bosgarren eta seigarren mailako ikasleak taldeka bananduten gara, gitxi gorabehera lau ikasleko taldeetan, jagokun egunean bai



jolasorduan bai bazkalostean materia organikoa jaso eta konpostagailura botateko.

Jolasorduan hamaiketako egin ondorengo soberakin organikoak jaso eta konpostagailura botaten doguz gelara joan aurretik. Kasu honetan ez deusagu konpostagailuari ezer egiten.

Bazkalostean janlekuko soberakinak (ogia, frutazalak, eta lehen eta bigarren plateretako hondakinak) konpostagailura

botaten doguz. Ondoren, materia marroia botaten dogu janariagaz nahastuteko eta segiduan, amaituteko, materia marroiagaz estaltzen dogu euliak eta usain txarra ekiditeko. Normalean, astean behin, ur baldekada bat botaten deusagu, baina lar siku badago astean bi edo hirutan botaten da, beharizanaren arabera. Konpostagailuan ur falta dagoan ala ez, nahasketea egiterakoan konturatuten gara. Iraulketan konposta zuri badago ur




faltea dauanaren seinale izaten da. Konpostagaz martxan ipini ginanean konpostagailu bi ipini genduzan. Baina, gitxi gorabehera, bi edo hiru hilabetetan lehenengo konpostagailua bete genduzan hirugarrena eregi eta daborduko beteten hasi gara.

Martiaren amaieran lehenengo konpostagailuan sortutako konposta batuko dogu egindako behar guztiaren emoitzea jasoz.

Gure eretxiz naturarentzako lagungarria da, baina batzuetan ura edo materia marroia falta jakonean usain txarra izaten dau. Holan danean jasan egiten dogu, ingurunea jagotea garrantzitsuagoa dalako.

## KIÑU



# Lau hitzordu Kiñun

### Irati Urien

Martiko bigarren hamabostaldirako ekintzak prest dagoz Igorreko Kiñu Gaztetxean. Korrika Kulturalaren barruan *Amets zirkoa salgai* antzerkia egongo da martiaren 20an, izatez danetariko publikoarentzako, baina hamahiru urtetik gorakoentzako gomendatua. 21ean, Brutal Arratia Fest, lau kontzertu, lau euroren truke: Madrilgo Second Silence eta Become Wrath, bertako Shrapnelmeat eta Gemikako Bullets Of Misery taldeakaz. Zazpararak-ek antolatuta Arratiako Hezitzaileen Topaketak izango dira 27 eta 28an. Hilea amaituteko, eta 28an be, bertso bazkaria egongo da Igorreko Maratu Gazteria Zerbitzuko gazteak antolatuta. 8 euro balio dau tiketak, Kiñu, Herriko, Erubgi eta Kukuman dagoz txartelak salgai 25era arte, eta modu horretan gazteak alkartrukean Belgikara egingo daben biajea ordaintzen lagunduko jakie, autogetisnoaren bidez kostuak txikiagoak izan daitezkan.

## AGENDEA

MARTIAK 17  
BEDIA

17:00etatik 20:00etara, hilaren 20ra arte, Bediako Txiki Txokorako, Udalekuetarako eta Uda Gaztean izena emotea liburutegian. Txiki Txokoa, 3, 4 eta 5 urteko umeentzat da; Udalekuak 6-12 urte bitartekoentzat eta Uda Gaztea 13 eta 17 urte bitartekoentzat. Bagilaren 29tik garagarriaren 10era izango dira. Uda Gazteko biajerako be izen emotea. Biajerako garagarriaren 20tik 26ra izango da Bartzelonara.

## DIMA

16:30etik 19:30era, martiaren 31ra arte, "Andrak literaturan" erakusketea liburutegian.

## IGORRE

Ganzabalek antolatuta, hilaren 31ra arte, Mendirik Mendi argazki erakusketea. Kultur Etxean.

## MARTIAK 18

## DIMA

19:00etan dispersinoaren inguruan berba egin eta kafea hartu. Gaztetxean.

## LEMOA

Aitaren Eguna dala eta, ludotekan tailer berezia.

## MARTIAK 19

## ARRATIA

09:00etan, autobusa Korrika 19ren urtekerara Urepelera joateko. Zeanuritik urtenda.

## IGORRE

19:00etan, San Josetako bertso saioa. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Amets Arzallus eta Jon Maia. Lasarte Aretoan.

## MARTIAK 20

## BEDIA

18:00etan urtenda domekara arte, Ganguren antolatuta Baqueira Beret-era eskiatzera. Udaletxe ondoan.

## IGORRE

19:00etan, antzerkia *Amets zirkoa salgai*

Kiñu Gaztetxean.

20:00etan, Laburbira zirkuituko film laburrak Lasarte Aretoan.

## MARTIAK 21

## IGORRE

21:00etan, kontzertuak Brutal Arratia Fest. Kiñu Gaztetxean.

22:00etan zinea *Las ovejas no pierden el tren*. Lasarte Aretoan.

## MARTIAK 22

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Annie*. 19:30ean, zinea *Las ovejas no pierden el tren*. Lasarte Aretoan.

## ZEBERIO

19:00etan, zinea *Themroc, el cavernicola urbano* (Zuz.: Claude Faraldo). Udaletxean.

## MARTIAK 23

## LEMOA

Hilaren 22an Uraren Nazinoarteko Eguna dala eta, ludotekan tailer berezia.

Galiziako musika eta jantza  
tradizionalak Areatzako kaleetan

Galizako A Xesteira taldeak kalejirea egingo dau Areatzako kaleetatik. A Xesteira, A Estradako (Pontevedra) kultur alkarte bat da. Bere helburu nagusia Galizako kulturea eta batez be musikea eta jantza tradizionalak ezetutera emotea da. Hori dala eta, ekitaldi batzuk emoten etorri dira Bizkaira eta Arratiatik be pasau gura izan dabe. Areatzan izango dira martiaren 20an, arrastiko zazpiretatik aurrera.

## MARTIAK 27

## AREATZA

19:00etan, Laburbira zirkuituko film laburrak Udal Aretoan.

19:00etatik 21:30era arte ekimenak landu, tela zatiak saldu, apaindu, jentearen datuak batu eta prozedura azalduteko mahaia ipiniko dau Gure Esku Dagok.

## IGORRE

Arratiako hezitzaileen topaketak Kiñu Gaztetxean. Zaztaparrak Asti Taldeak antolatuta.

17:30ean, Eidabe taldearen *Izar eta Zenaida* antzezlan Lasarte Aretoan.

## LEMOA

18:00etan, Korrika kulturala! "Bat, bi, hiru... festa" haur jantzia eskolako patioan (euria bada kiroldegian).

## ZEBERIO

19:00etan, *Zeberio kantuz* bideokliparen aurkezpena. Eskola zaharrea.

## IGORRE/LEMOA/ZEBERIO

19:30ean, atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

## MARTIAK 28

## ARANTZAZU

20:43an, Korrika Arantzazutik.

## AREATZA

10:00etan, Zugatz Eguna. Eleiz aurrean.

Korrika. 16:30ean, lapikoko kafea eta gailetak plazan; eta umeentzako tailerrak, korrikako petoak egiteko, xaboi ponpak... 17:30ean, Korrika Txiki entrenamendua; 18:00etan, Areatzako txistulariak+Eskean Kristö kantuan. Kanta gunea; 18:45ean, Dantza plaza eta txokolatea; 19:15ean, Zumbaberoketa.

20:08 Korrika Areatzatik.

21:00etan Gaztetxean mokadutxo eta aurreko Korrikaren bideo emonaldia.

21:00etan, Nika Bitchashvili trioaren kontzertua The Quiet Corner-en.

## ARTEA

20:14ean, Korrika Arteatik.

## BEDIA

Kolazinoko Mendi Eguna. Urtekerak: Mendi martxa 08:15ean, BTT lasterketa 09:00etan eta Mendi lasterketa 09:30ean. Arrastian erromeria Jokaldigaz.

## IGORRE

Arratiako hezitzaileen topaketak Kiñu Gaztetxean.

Bertso bazkaria Kiñu Gaztetxean Maratu Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

20:57an, Korrika Igorretik.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, umeen urtekera. Paul Atalaya (908 m.).

## UBIDE

18:26an Korrika Ubidetik.

## ZEANURI

Zuhaitz Eguna. Saldropon.

19:40ean Korrika Zeanuritik.

## ZEBERIO

Austarri mendi taldeak antolatuta urtekera Ernio-Gazume.

11:30ean, Gazte eta umeentzako Olinpiadak (14 urte arte), 12:30ean, Nagusien Olinpiadak, ostean sari banaketea, Ermitabarrin, Iturape Kultur Elkarrekin antolatuta; 18:30ean, Austarri Kultur Taldeak antolatuta, Zurrumuru taldearen *Arkaksoen zirkoa* ikuskizuna; 20:00etan Jubiladuen Elkarrekin eskutik kopaua.

21:52an, Korrika Zeberiotik.

23:00etatik aurrera, txokolatea Guraso Elkarrekin eskutik.

## MARTIAK 29

## AREATZA

Parkeak antolatuta, mendi urtekera: Pagomakurre-Atxulaur-Supelegor.

## BEDIA

02:59an, Korrika Bediatik.

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Into the Woods*. 19:30ean, zinea *Whiplash* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

03:15ean Korrika Lemoatik.

Ganzabal Mendi Taldeak Lizarrusti-Larraitz-Pardarri (1.396 m.)-Ganboa (1.413 m.)-Larrunarri (1.342 m.).

## ZEANURI

Erramu domekea. 11:30ean Piedadean erramuen bedeinkazioa. Prozesioa erramuakaz eta gaztekoen antzezlan.

## MARTIAK 30

## IGORRE

19:30ean, Timoteo Atubaren gaineko liburuaren aurkezpena. Lasarte Aretoan.

## MARTIAK 31

## IGORRE

18:00etan, Igorreko Udaleko Bardintasan Sailak antolatuta, "Gu be bai runners" ekimenaren aurkezpena Kultur Etxeko goiko gelan.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## PISUA SALGAI

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m<sup>2</sup>, hiru logela, komun bi, trastelekua eta garajea. Eraikin barria. Interesautu egon ezker, 686 495 724 telefonora deitu.

## DANERIK

## HAUR ZAINZA EREMU ZABALEAN

Haur zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? ordu pare bat, egun osorako edo eta hile baterako? Jaunartze, urtebetetze, ezkontza, batzarretan... ekintzak egiten doguz (globoflexia, eskulanak...). Deitu konpromiso barik 639 293 539 Eider.

## KOTXEKO GILTZAK GALDU DODAZ

Zezeilaren 24an kotxeiko giltzak galdu nebazan Igorren, Lasarte Aretoaren inguruan. Baten batek topau badaz deitu dagiala mesedez 665 732 565 telefonora.

## BASERRIRAKO LAGUN BILA

Igorren, Urkuzuko baseri baten bizi gara eta lagun bila gabiz. 200 euro. Giro atsegina, ortua, oiloak, frutarbolak, internet-a eta aukera gehiago. Interesatuak deitu: Izaskun 605 728

358 edo Txapu 669 311 309 edo idatzi izaskun\_urbaneta@hotmail.com-era.

## BEHAR BILA

Etxeko beharrak eta garbiketarako egiten dodaz. Kotxeduna. 658 591 307.

## INGELES ESKOLAK

Ingeles irakasleak eskola partikularak emoten ditu. Cambridgeko "Certificate of Proficiency in English" titulua daukat eta Erresuma Batuan bizi izan naz 4 urtez. Irune 615 708 238.

## BASERRIRAKO LAGUN BILA

Baserrian biziteko lagun bila nabil (Zeberio). Bilbotik ordu erdira eta herrigunetik (denda, mediku, taberna...) 10 minutura oinez. 200 euro personako, gastuak barne. Interesatuak deitu 687 338 515 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Izar eta Zenaida: indar magikoa* antzezlanerako.

Kari Basozabal (Areatza)  
Lorea Igartua (Zeanuri)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Las ovejas no pierden el tren* filmarako.

Guillermo Carreño (Bilbo)  
Peio Barrenetxea (Igorre)



**3** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12


urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA



1.- Zerki atzizkia. Goibel. 2.- Modua. Urtaro. 3.- Aditz atzizkia. Gizonezkoen izena. 4.- Grezia klasikoko olerki lirikoa. Landara mota bat. 5.- Lerroa. 6.- Nafarroako mendebaleko udalerria. (Atz.) Nekazariaren lanabes. 7.- Itxi. Hotzegi dagoanean esaten dan esklamazinoa. 8.- Bizkaieraz, ote. Berba-alkarketan, ate. 9.- Ur-kirola. Edabe garbi.

### GOITIK BEHERA

1.- Odolbako. Agur. 2.- Itxuratu. 3.- Bokala. Soldatea. 4.- Bat erromatar. Anperea. Argona. Bokala. Fluorra. 5.- Labasu. Azalera neurriaren sinboloa. 6.- Uretara bota. 7.- Zelan. Bits.



Topau zazpi euskal abizen.



<p><b>Igorren ARKITEKTOA</b> Aitzol Aurrekoetxea Pujana Lehendakari Agirre 23, behea aitzol@coavn.org · 675 705 111</p>	<p><b>AKESOLO, S.A.</b> GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK Garbe, 29 · Telefonoa: 94 673 60 14 · IGORRE-BIZKAIA</p>	<p><b>Orrie</b> FOTOKOPIAK · PAPERDENDA L. Agirre, 7. 48140 Igorre (Bizkaia) · Tfnoa.: 94 673 64 75</p>	<p><b>NAIARA</b> Hortz Klinika Lehendakari Agirre, 19 48140 Igorre 94 631 52 26</p>	<p><b>SESOREAK</b> basolo Emaldi FINKEN ADMINISTRATZAILEA Abokatua 620. 57.86.04 asiterabasolo@hotmail.com Bilbao-Zeanuri</p>
<p><b>Recreativos Gubi S.L.</b> Angel Larrea Zornotza · Tfnoa 649 86 95 36</p>	<p><b>Los Chopos</b> neurri egindako armairuak Avda. Los Chopos, 35 (Neguri) Tel.: 94 430 40 94 <b>Esposizinoa eta fabrika Lemoan</b> Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44 www.armariosloschopos.com</p>	<p><b>GARANTXE Autoeskola</b> TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ Baimenak: A1, A, BTP, B Lehendakari Agirre 31 Tfnoa.: 94 673 71 32 48140 IGORRE (Bizkaia) garantxe@euskalnet.net</p>	<p><b>AKETEGIA</b> <b>GAY &amp; LORA</b> IGORRE</p>	<p><b>AHOLKULARITZA:</b> LEGE-LAN ARLOAN <b>ZUZENBIDE</b> ZERGA ETA DIRU KONTUETAN ONDASUN HIGIEZINEN ASEGURUETAN Sabino Arana, 3-Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 61 - 48140 IGORRE</p>
<p><b>BIXER TABERNA</b> Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO</p>	<p><b>Jose Luis Corbacho</b> pintura lanak Sabino Arana, 3. 3a · 94-673-70-87 Igorre 48140 Bizkaia · 609-79-40-54</p>	<p><b>KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM</b> Roberto eta Rosana Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia) 94 631 92 00</p>	<p><b>Pinturas Arratia</b> Javi Morato Tel. 628 443 992</p>	<p><b>ARRATIA AUTOESKOLA</b> karneta euskeraz zein erderaz Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia) Telefona 94 631 56 31 · Faxa 94 673 70 83 e-posta: unalzul@euskalnet.net</p>

## XABIER LARRAZABAL

**Herri berdeak eta uri gorriak**

Xabi Larrazabalek dino bilboztarra eta zeanuriztarra dala bera, bien nahastea. Familia Zeanurikoa da eta askotan egoten da Arratian, bera Bilbon beti bizi izan dan arren. Euskadi Irratian egiten dau behar, Mainer Segurolagaz batera "Hiri Gorrian" saioa aurkezten. Martiaren amaieran ETBko "Soinu ehiztaria" saio barria aurkezten ikusteko aukerea izango dogu.

**Erredakzinoa****Zeanurikoa zara, ezta?**

Gurasoak Zeanurikoak dira. Ni Bilbon bizi izan naz beti, baina Zeanurin denpora asko pasau dot.

**Noz hasi zinan "Hiri Gorrian" programeagaz?**

2013 urteko urrietan hasi ginan. Hau da gure bigarren denporaldia. Honetan hasi aurretik "Faktoria" programan egon nintzan. Leioan, EHUn Kazetaritza ikasketak amaitu eta segiduan hasi nintzan Euskadi Irratian, "Faktoria" saioan, goizetako magazinean, eta han bost urte egon nintzan.

Nik Bilbon egiten dot behar. Baina orain "Hiri Gorrian" saio-rako Donostiara sarri joaten naz, astean behin edo.

**Hiri Gorria zein da? Zeanuri be herri gorria izango litzateke? Ze adjetibo ipiniko zeunskio Zeanuriri?**

Berdea. Gorria baino, berdea da Zeanuri.

Gogoan uri konkretu bat euki barik ipini jakon "Hiri Gorria"

izena programeari. Jokoa egitearren, baina ez da uri bat. Bilbori asko begiratu arren, ez deusagu bakarrik Bilbori begiratuten. Bilbo Euskal Herri mailan izan leiteke "uriena". Baina ez Bilbo bakarrik, uria edozein izan leiteke, baina batez be gurea; ez ez-dakit-nongo puntako uri bat. Eta herriai be begiratuten deutsegu. Baina jolasa da gehiago, kontzeptua baino.

**ETBn programa bat aurkeztuko dozu. Ze motakoa?**

Bai. Orain telebistarako saio bat grabetan gabiz, alkarrizketa saioa da eta "Soinu ehiztaria" deituten da. Euskal Herriko jente ezagunari egiten deusaguz alkarrizketak. Eta deitzean da "Soinu ehiztaria" erabilten doguzalako euren bizitzako soinuak alkarrizketea egiteko. Baina atzenean atxakia baino ez dira soinuok, alkarrizketa personalak dira. Guk esaten deutsegu esateko zeintzuk diran euren bizitzako soinuak, barruan sartuta daukiezanak, eta jokoa egiten dogu horregaz. Baina alkarrizketa saio bat da eta soinuak alkarrizketea janzteko modu bat.

ETBko "Soinu ehiztaria" alkarrizketa saioa martiaren 22an estreinauko da

**Noz hasiko da?**

Martiaren 22an.

**Arrebea be kazetaria da (Ainhoa Larrazabal, Bizkaia Irratian egiten dau behar). Nondik jatortzue afizinoa?**

Ez dakit. Geneetan ez behintzat. Irratia asko entzun izan da gurean beti, baina ez dot pentsetan aparteko afizinerik egon danik. Nik ez neukan pentsauta txikitatik irratan behar egin gura nebala. Kazetaritza ikasi neban eta irratan hasi nintzan. Kasualidadea seguramante.

**Errez konbinau ahal dozuz irratia eta telebista? "Hiri Gorria" eta "Soinu ehiztaria"?**

Bai. Eta ETBko programea zortzi saio baino ez dira. Ni "Hiri Gorrian" nago, horixe da nire saioa. Telebistakoa orain urten dan gauza bat da, baina ez dot ikusten aparteko ezer moduan.

**Amaituta daukazu "Soinu ehiztari" saioko alkarrizketen****grabazinoa?**

Ez. Pare bat falta dira (martiaren 12an). Alkarrizketatutako personajeak oso diferenteak dira euren artean. Hor dagoz kirolari pare bat, kazetariren bat, aktoreak... Aurreko egun baten Maddalen Iriartegaz egon ginan.

Uste dot emitiduko dan lehenengo alkarrizketea Jagoba Arrasateri egindakoa izango dala.

**Edade bateko jenteak antzeko soinuakaz daukie loturea?**

Ez pentsau. Baina edade diferenteetako jentea dago, jente gaztea, helduagoa... Bariedade handia dago. Adibidez, batek esaten deusku, "nik sano sartuta daukat itsasoaren soinua" eta guk orduan jokoa egiten dogu horregaz. Eta beste batek, "ba nik daukat trenaren soinua, ze gure etxe ondok pasetan zan tren" eta hortik jotzen dogu. Musikeari baino gehiago soinuai erreparetan deutsegu.

**begitu**  
arratia ubide zeberio

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

Arratiako Herri Ikastetxeak  
**Gure**  
ikastetxeak  
Euskalduna  
kalidadezkoa  
herrikoa

**J.B. Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

